



EAJ-PNV eta PSE-EEren ARTEKO GOBERNU AKORDIOA

SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak datozen hamarkadetako gipuzkoarren ongizatea bermatzeko beharrezkoa den ziklo berria lideratu nahi du gipuzkoarrekin elkarlanean:

- Etorkizuneko ekonomia lehiakorrerako baldintzak sortzen lagunduz, beti ere justizia sozialean oinarritutako gure eredua bermatzeko aberastasun nahikoa sortuz.
- Gizarte babeserako sistema justua indartuz eta pertsonen arteko elkarbizitza kohesionatua sustatuz, etorkizuneko ongizateetik kanpo inor gera ez dadin.
- Gipuzkoako Foru Aldundia eraldaketaren bidez indartuz, datozen urteetan izango ditugun desafio sozio-ekonomikoei eta ingurumenari dagozkion erronkei erantzuten jarrai dezan.

Etorkizun oparoa eta sendoa elkarrekin eraikitzeko bide horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eginkizuna eraginkortasunez eta zorrotz betetzen jarraituko du: aberastasuna sortzen laguntzen, fiskalitate progresibo eta justua jorratzen, justizia soziala indartzen, baliabide publikoak egoki inbertitzen, elkarbizitzarako giroa hobetzen, elkarlana bultzatzen eta, azken baten, Gipuzkoaren eta gipuzkoarren ongizatea sustatzen eta bermatzen.

BALIOAK

Etorkizuneko gure proiektuaren oinarrian, gure herriaren eta pertsonen balio-motorrak ezarri ditugu:

- **Justizia.** Denei aukera berdinak ematen dizkien lurraldea, eta egiten duenak eta saiatzen denak berea lortzen du. Behar duenari laguntzen zaio, inor alde batera geratu ez dadin.
- **Lana.** Lanaren bitartez pertsona orok bere bizi proiektua gauzatzeko aukera behar du. Kalitatezko lanak soilik bermatuko digu etorkizuna.
- **Zintzotasuna.** Emandako hitza betez, lehen egin dugun bezala.
- **Konfiantza.** Herritarren, erakundeen eta gizarte antolatuaren arteko konfiantza gizarte ongizaterako ezinbesteko indarra da.
- **Elkarlana.** Auzolaneko tradizio zaharra egun ere Gipuzkoaren indargune nagusia da; elkarrekin gauza handiak egiten ditugu.

13 HELBURU GIPIZKOA SENDOTZEN JARRAITZEKO

1. Ekonomia lehiakortasuna indartzea. Gipuzkoako enpresak munduan lehiakor izaten jarraitzeko beharrezko dituzten eraldaketak gauzatzen laguntzea eta lurraldean baldintza egokiak sortzea: fiskalitatea, azpiegiturak, berrikuntza politikak, talentua, ekonomia berriak, etab.

2. Gizarte politiken eraginkortasuna eta bideragarritasuna bermatzea. Gizarte babes sistema egokitzea, gizartearen zahartzeak sortutako erronkei eta mundu irekian ditugun gizarte premia berriei gizalegez, justiziaz eta zorrotasunez erantzuteko, etorkizuneko ongizatea bermatuko duen bideragarritasuna ziurtatuz.

3. Elkarlaneko gobernantzan sakontzea. Etorkizuna Eraikiz-en gobernantza ereduko esperientzian sakontzen jarraitzea, Foru Aldundia, Gipuzkoako eragileak eta gipuzkoarrak elkarlanean, etorkizuneko proiektu kolektibo partekatua lantzen jarraitzeko.

4. Lurraldearen espezializazio adimentsuan jarraitzea. Etorkizuneko lurralde adimentsurako espezializatorantz hartutako bideetan sakontzea erreferentziazko zentroak garatuz eta Gipuzkoako adimen espezializatua, berrikuntza eta ikerkuntza indartuz.

5. Mugikortasun eredu integrala hobetzea. Garraio azpiegitura ezberdinek (bidegorri sarea, autobus sarea, Renfe Aldirikoak, Abiadura Handiko Trena, Donostialdeko Topoa) ahalbidetzen duten mugikortasun sistema integral eta multimodala garatzea eta sustatzea.

6. Kultura, talentu artistikoa eta sormen industriak indartzea. Gizarte konplexu eta mestizo honetan, kulturak eta euskarak munduan kokatzen gaituzte, gizartearen gaitasun kritikoa garatzen dute eta aberastasun material eta inmaterialaren sorburu dira. Horrek guztiak Foru Aldundiaren babesa merezi du.

7. Kultura demokratikoa indartzea. Herritarren arteko elkarbizitza hobetzeko eta gizarte sendo eta justua izateko, pertsonen kultura demokratikoan sakontzen eta indartzen jarraitzea.

8. Gizon eta emakumeen berdintasun erabatekoaren alde lan egitea. Gizonen eta emakumeen berdintasuna areagotzen eta hobetzen jarraitzea, kristalezko sabairik gabeko gizarte justu eta berdineko bat egiteko.

9. Krisi klimatikoari aurre egitea. Klima aldaketaren arazo globalari aurre egitea tokian tokiko erantzunak eskainiz; beharrezkoa den transizio ekologikoa gauzatzeko neurri integralak bultzatuz; uraren eta energiaren kontsumoak murriztuz; kontsumorako, hondakinen kudeaketarako, energia sortzeko eta mugitzeko eredu berriak sustatuz; eta ekonomia zirkularra bultzatuz.

10. Lurralde oreka eta ongizatea indartzea. Eskualdeen arteko lurralde-etenak murriztea, lurraldearen orekaren mesedetan, horretarako herritarren bizi-baldintzak hobetuz eta zerbitzu publikoetan maila bereko estandarrak ezarriz. Landa eremuko herri txikien ongizateko aukerak bermatzeko politikak garatzea.

11. Foru Aldundia eraldatzea. Egungo munduak eta gizarteak dituen beharrei erantzuteko eraldatzea foru administrazioa, gertuko erakunde moderno, desburokratizatu, digitalizatu eta malgua izan dadin.



12. Lurraldeko biztanleriaren piramideak erakusten digun zahartze-joera aldatuko duten politika berriak errein. Lurraldeko biztanleria gaztetzeko gai izan behar dugu, horren baitan egongo baita datozen belaunaldien ongizate maila.

13. Zerga iruzurra eta saihestearen aurkako borrokari eutsi. Gastu publikoa mantentzeko eginbeharra elkertasunezko kontua da. Zerga iruzurra egiten dutenak Ongizate Estatuaren etsaiak dira.

EKONOMIA LEHIAKORTASUNA

1. HELBURUA: EKONOMIA LEHIAKORTASUNA INDARTZEA

Ekonomia lehiakortasuna indartzea. Gipuzkoako enpresak munduan lehiakor izaten jarraitzeko beharrezko dituzten eraldaketak gauzatzen laguntzea eta lurraldean baldintza egokiak sortzea: fiskalitatea, azpiegiturak, berrikuntza politikak, talentua, ekonomia berriak, etab.

1.1. ENPRESA SENDOTZEA. Enpresek datozen erronka eta beharrei modu eraginkor eta lehiakorrean erantzuteko gai izatea nahi dugu. Horretarako, enpresen bidelagun izango gara, lau ardatz dituzten politika publikoak sustatuz:

1.1.1 Pertsonak eta ezagutza sendotzea. Pertsonak eta haien ezagutza eta gaitasunak dira gure lehiakortasun faktore nagusia. Aldagai subjektiboetan inbertituko dugu, aberastasuna sortzeko; pertsonak erdigunean jarrita, gure enpresen etorkizuna hobetuko dugu:

- Talentuaren sustapena eta GIPUZKOA TALENT estrategia garatzea. Talentua sortu, erakarri eta errotzeko Gipuzkoa Talent estrategia integrala indartuko dugu, Gipuzkoa nazioarteko ikuspegitik ere lanerako lurralde erakargarri bihurtzeko.
- STEM (Science, Technology, Engineering eta Mathematics) bokazioen bultzada eta emakumeen presentzia areagotzea. STEM ikasketak sustatuko ditugu, arlo horretan emakumeen presentzia eskasa handitzeko.
- Enpresetan langileen parte-hartzea indartzea. Langileen parte-hartzea sustatzeko sistema integral bat bultzatuko dugu, pertsonen ongizate maila hobetu eta enpresak Gipuzkoan errotzeko. Horretarako, ahaleginak egingo ditugu langileek kudeaketan ez ezik jabetzan eta emaitzetan ere parte-hartze handiagoa izan dezaten.
- Lan bizitza eta familia bateragarri egiteko politikak zabaltzea. Horrela politika aurreratuak abiatuko ditugu lan eremuetan, jardun profesionala eta bizitza pertsonala bateragarriagoak izan daitezten.
- Unibertsitatearekin elkarlana sustatzea. Unibertsitatearekin elkarlana sustatuko dugu, Gipuzkoarentzat agenda publiko berri bat definitzeko batetik, eta lurraldearen lehiakortasunerako, iraunkortasunerako eta kohesiorako garrantzitsuak diren erronkei aurre egiteko gaitasuna indartzeko bestetik.
- Enpresa antolaketa berriak sustatzea. Ingurune aldakorretara modu jasangarri batean egokitzen diren enpresa antolaketa berriak bultzatuko ditugu.
- Ikaskuntza, gaitasun profesionalen etengabeko eguneraketa (birziklatzea) eta espezializazioa sektore ezberdinetan indartzea. Ezagutzaren ekonomiaren eskaerei modu egokian erantzungo dion bizitza osoko ikaskuntza sistema indartuko da, gaitasun profesionalen etengabeko eguneraketa eta sektore ezberdinetako espezializazioa ahalbidetzeko.
- Goi mailako ikertzaileak eta talentua erakartzea eta errotzea, Gipuzkoako ikerketa, berrikuntza eta garapena indartzeko. Nazioarteko eskarmentua duten goi mailako ikertzaileak erakartzea eta errotzea sustatuko da, Gipuzkoako ikerketa, berrikuntza eta garapeneko sarea indartzeko.

1.1.2. Teknologiaren garapena indartzea. Gure enpresak garapen zientifiko-teknologikoaren eraldaketa sakon eta azkar batera ari dira egokitzen. Ahalegin handia da hori enpresentzat, baina ezinbestekoa etorkizunean lehiakor izateko. Horregatik, gure enpresei lagundu egingo diegu teknologia aurreratuetara etengabe egokitzeko prozesuetan:

- Ikerketa eta garapeneko proiektu berritzaileak. Bikaintasunezko ezagutza eta merkatura zuzendutako ikerketa eta garapen teknologikodun proiektu berritzaileak txertatuko ditugu.
- Industria 4.0ren indartzea enpresetan. Industriaren eraldaketa eta fabrikazio aurreratura bideratutako industria 4.0ko egitasmoak bultzatuko ditugu enpresatan.
- Digitalizazioa eta eraldaketa teknologikoa. Gipuzkoako enpresen digitalizazioa eta eraldaketa teknologikoaren azkartzea bultzatzeko egitasmoak jarriko ditugu martxan.
- Adimen artifiziala. Gipuzkoan adimen artifiziala bultzatzeko estrategia abiatuko dugu legealdi berrian.

1.1.3. Lehiakortasunerako azpiegituren ekosistema sendotzea. Enpresek ingurune eta giro egokiak behar dituzte gero eta lehiakorragoak izateko, berrikuntzarako, elkarlana indartzeko... Horregatik, ekosistema hori indartzen jarraitu behar dugu:

- Azpiegitura teknologikoak zurkaiztea. Gipuzkoako azpiegitura teknologikoak indartuko ditugu, gure ekonomiaren berrikuntza eta lehiakortasuna sendotzeko.
- Ekintzailletza ekosistema indartzeko azpiegitura aurreratu eta espezializatuak. Ekintzailletza eta jarduera ekonomiko berriak sustatzeko azpiegitura aurreratu eta espezializatuak sustatuko ditugu Gipuzkoan.
- Erreferentziazko zentroak (hauek beste helburu batean garatzen dira). Lurraldeko etorkizuneko erronkei erantzun zuzen erreferentziazko zentroak garatu eta indartuko ditugu.

1.1.4. Internazionalizazioa indartzea. Argi dago ekonomia globalean nazioartekotutako enpresek bakarrik dutela lehiakor izan eta aberastasuna sortzeko benetako ahala. Gure enpresa aurreratuenek urteak daramatzate nazioartean lehiatzen, baina gehiago behar dute eta dugu. Testuinguru globalera bere osotasunean egokitzen lagunduko diegu gure enpresei.

- Misio enpresarialak bultzatzea intereseko merkatuetan. Gipuzkoako enpresen nazioartekotzea indartzera zuzendutako enpresa misioak burutuko ditugu intereseko merkatuetan.
- Enpresa txiki eta ertainei (ETE) zuzendutako nazioarteko aholkularitza. ETEen nazioartekotzea erraztera zuzendutako aholkularitza espezializatua sustatuko dugu.
- Gipuzkoarentzat estrategikoak diren alorrak sarean jarriko ditugu, nazioarteko ezagutza aurreratuarekin. Nazioarteko ezagutza aurreratuarekin sarean lan egitea bultzatuko dugu Gipuzkoarentzat estrategikoak diren elektromugikortasunaren, energia biltegitzearen, zibersegurtasunaren, zahartze osasuntsuaren, gastronomia digitalaren eta klima aldaketaren alorretan.
- Gipuzkoako erakargarritasuna bultzatuko dugu nazioarteko ikerlari eta talentuari begira. Nazioarteko ikertzaile eta talentua Gipuzkoara erakartzeko plana bultzatuko dugu.

1.1.5. Enpresa txiki eta ertainak indartzea. Gipuzkoako enpresa sarean ezinbestekoak diren enpresa txiki eta ertainei lagunduko diegu etorkizuneko lehiakortasunerako dituzten erronkei (dimentsioa, erreleboa, finantzazioa, eraldaketa estrategikoak...) erantzuteko ahaleginean, indartsuagoak eta lehiakorragoak izan daitezzen.

- Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainak indartzeko programa integrala bultzatuko dugu, enpresen jarraipena eta errelebo prozesuak, nazioartekotze eta finantzaziorako aholkularitza eta instrumentuak. eta balio erantsi handiagoko negozioen eraldaketak erraztuz.

1.1.6. Zailtasun egoeran dauden enpresei laguntzea. Krisi ekonomiko sakona gaindituta, Gipuzkoako enpresa gehienak osasun egoera onean badaude ere, beti dago ziklo ekonomiko txarragoen edo bestelako arriskuen mehatxua. Esperientziak erakutsi du zailtasunak daudenean sendotzen saiatzea dela bide egokiena, etorkizunean lehiakorrago izateko. Hori kontuan harturik, hainbat ekimen landuko ditugu arriskua izan dezaketen enpresei laguntzeko:

- Zailtasunetan dauden enpresei zuzendutako programa osoa garatuko dugu. Prebentziora zuzendutako behatokia garatuko dugu, zailtasun egoerara heldu aurreko egoerak aldeztu aurretik identifikatu eta jasagarritasun egoerara bideratzeko.
- Finantzazioa eta bideragarritasun planak behar dituzten enpresei zuzendutako bitartekaritza zerbitzua jarriko dugu martxan.
- Langabetuen enpleagarritasuna hobetu, eta jarduera ekonomikoaren jarraipenera eta berrindartzera bideratutako neurriak abiatuko dira.

1.2. ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA. Gure ekonomia aurreratuak duen erronka nagusietako bat enpleguaren kalitatearekin du zerikusia. Hainbat faktore estruktural eta koiunturalen ondorioz, “enplegatu pobre” berriak sortzen eta areagotzen ari dira; lana eginagatik, ez dute aukerarik bizi-proiektuak duintasunez garatzeko. Horri erantzuteko neurri integralak lantzea lehentasunezkoa da.

Hori lehen mailako erronka da, bere baitan hainbat dimentsio ezberdin biltzen dituena. Horiek lantzeko politikak garatzea ezinbestekoa izango da datorren legegaldian, beti ere argi edukita kalitatezko enplegua edukitzeko modu bakarra enpresa eta ekonomia lehiakorrek edukitzea dela.

1.2.1. Pertsonen gaitasunak indartzea, enplegua hobetzeko. Pertsonen kualifikazioak, gaitasunak eta jarrerak eragin zuzena dute enpleagarritasunean, lan-merkatuko baldintzetan eta enpresen lehiakortasunean. Pertsonen enplegu hobetzeko bidean lagunduko diegu, lurraldean ahalik eta kalitate oneneko lanpostuak gara daitezten. Horretarako:

- Lanerako formazioan lagunduko dugu: Merkatuko dualtasuna neurri handi batean lan kualifikatuaren eta kualifikaziorik gabekoaren arteko ezberdintasunak eragindakoa da. Horri aurre egiteko formazio plan zehatzak sustatuko dira.
- Lana inklusiorako: Elkar-ekin programaren ildoari jarraituz, gizarte bazterkerian edo arriskuan daudenak enplegura gerturatzeko politikak sustatuko dira.
- Lanpostuen hutsuneak betetzeko politikak: zahartzeak eta espezializazioak eraginda, hainbat lanpostu betetzeko dagoen giza kapital eskasiari aurre egiteko neurriak sustatuko dira.

1.2.2. Enpresak laguntzea enpleguaren kalitatea hobetu dezaten. Bizi proiektuak duintasunez garatzea ahalbidetzen duten lanpostuak edukitzeko modu onena enpresa bideragarriak eta sendoak edukitzea da. Hortaz, enpleguaren kalitatea hobetzeko ekonomia sustapeneko politika guztiak ezinbesteko dira. Baina horrekin batera, berriaz sustatuko da enpresek gai hau indartzea eta zaintzea:

- Lurraldeko enpresetan enpleguaren kalitatea sustatzeko politika integralen plana egingo da.
- Enpleguaren kalitatea hobetzeko, 360 graduko politikak planteatuko dira, enpresek baldintza horiek ahalbidetu ditzaten.

- Gizon eta emakumeen arteko soldata ezberdintasunak ekiditeko neurriak indarrean jarriko dira. Horrenbestez, enpleguaren kalitatea hobetzeko prozesuaren baitan genero ikuspegia ere txertatuko da.

1.3. EKONOMIA JARDUERA BERRIA BULTZATZEA. Aurrez deskribatu den ziurtasunik gabeko testuinguru global, aldakor eta azkar honetan, ezinbestekoa da politika berriak, berritzaileak eta ausartak martxan jartzea. Horretarako, funtsezkoa izango da orain arteko hainbat politika publikoren eragina ondo ebaluatzea eta berrikustea, berrikuntza eta sormena politika publikoen diseinura aplikatzea, ezagutza gune aurreratuetako esperientzietatik ikastea eta apustuak egitea. Baina beti ere argi edukita, orain arte egindakoaren jarraipena ez dela nahikoa izango eta, ezinbestean, gauza berriak eta berritzaileak egin beharko direla.

1.3.1. Ekintzailetasuna eta barne ekintzailetasuna sustatzea. Gipuzkoaren ezaugarri eta altxor nagusietakoa da gipuzkoarron ekintzailetasun kultura eta gaitasuna. Hori sustatzen eta indartzen jarraitzea ezinbestekoa da, etorkizunean ere aberastasuna eta enplegua sortzeko gai izan gaitezen. Hainbat ardatz indartuko dira, ekintzailetasuna eta enpresetako barne ekintzailetasuna sustatzeko:

- Oinarri teknologikodun jarduera ekonomiko berria bultzatzeko programa garatuko da.
- Espezializazio inteligenteari lotutako arlo estrategikoetako enpresa garapena sustatuko da.
- Enpresetatik sortzen den ekintzailetza (barne ekintzailetza) laguntzeko prozesuak indartuko dira.
- Enpresa berrien azelerazioa sustatuko da.
- Ekintzailetzara bideratutako inbertsio eta finantza tresnak landu eta hobetuko dira.
- Ekintzailetza kultura indartzeko sentsibilizazio jarduerak bultzatuko dira.

1.3.2. Aukera berriak bultzatzea ekonomia zirkularren eta sorkuntza industrian. Ekonomia aurreratuetan garatzen ari diren ekonomia sektore eta eredu berriak aukerak dira oro har, baita Gipuzkoarentzat ere. Horien artean, bereziki aukera egokiak dira ekonomia zirkularra eta sorkuntza industria, potentzialki haz daitezkeen arlo gisa. Horiek sustatzeko, hainbat ekintza gauzatuko dira:

- Ekonomia zirkularri eta sorkuntza industriari lotutako proiektu berriak sustatuko dira.
- Arlo berrietako aukeren inguruko nazioarteko behaketa eta azterketa sustatuko da.
- Etorkizuneko estrategia partekatua diseinatuko da, sektore hauetako eragileekin elkarlanean.

1.3.3. Erosketa publiko berritzailea sustatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta beste erakunde publikoen inbertsio eta politika publikoetan erosketa irizpideak eguneratu egingo dira, erosketa publiko berritzailea indartuko da, jarduera ekonomikoa sustatzeko asmoz:

- Erosketa publiko berritzaileko proiektuak martxan jarriko dira Foru Aldundiaren departamendu ezberdinetan.
- Erosketa publiko berritzaileko irizpideak landu eta, esperimentazioaren bidez, ohiko politika publikoetan txertatuko dira.
- Erosketa publiko berritzaileko irizpideen plana garatuko da legealdian zehar.

1.4. EKONOMIA SUSTAPENA SEKTORE BAKOITZERA EGOKITUA. Gipuzkoako ekonomia aurreratua eta dibertsifikatua da. Izaeraz, sektorez, bilakaeraz eta tamainaz anitza den enpresa eta jarduera multzoa dugu. Guztiak dira garrantzitsuak eta beharrezkoak, baina ezinbestekoa da ekonomiaren sustapenerako

politikak bakoitzaren berezitasunetara moldatzea. Sustapen “kustomizatua” egingo da, ekonomia aurreratuko testuinguruak eskatzen duen gisan.

Lau sektore azpimarratuko ditugu bereziki, ekonomian edo lurraldearen garapenean duten eraginagatik: industria, turismoa, merkataritza eta nekazaritza.

1.4.1. Industria. Gipuzkoako ekonomiaren motorra da, aberastasunaren sortzaile handiena eta sektore nazioartekotuena eta lehiakorrena. Gure ongizatearen oinarrian dago, eta horregatik du berebiziko garrantzia etorkizuneko desfioei (dimentsioa, teknologia, berrikuntza, nazioartekotzea, finantziarioa...) erantzuteko; bidelagun izan behar dugu behar zehatzak ondo ulertuz eta ahal den guztian bultzada emanez. Industria enpresak ekonomi sustapena osoaren erdigunean egon arren, sektore gisa bultzatuko dugu industria:

- Industriaren modernizazio eta eraldaketa sustatuko dugu, industria 4.0ri lotutako politikak indartuz.
- Belaunaldien arteko erreleboa erraztera bideratutako neurriak jarriko ditugu martxan, industria ehunaren jarraipena bermatzeko.
- Industria enpresen arteko elkarlana sustatuko dugu, industriaren balio kateak indartuz.
- Industriara zuzendutako bokazio eta talentua indartuko dugu, Gipuzkoa Talent eta STEM estrategien bitartez.
- Industriaren nazioartekotzearen indartzea sustatuko dugu, helburu hori duten estrategietan lagunduz.

1.4.2. Turismoa. Lurraldearentzako aberastasuna eta kalitatezko lanpostuak sortzen dituen eta garatze bidean dagoen aktibitate honen jasangarritasuna da erronka nagusia. Turismo eredu jasangarri, adimentsu eta orekatu batean sakontzea da gure helburua. Testuinguru honetan, berebiziko garrantzia du aurreko legealdian Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Turismoaren Mahaian Gipuzkoako turismo ereduaren inguruan lortutako akordio politikoak, zeinetan jasotzen den hainbat gairi buruzko adostasuna: teknologia berriak, fiskalitatea, jasangarritasuna, irisgarritasun unibertsala, gure kultura, euskara, ekonomia, enplegu egonkorra eta Gipuzkoaren nazioarteko proiektzioa. Honako ekintza hauek gauzatuko ditugu:

- Turislan, Euskadin turismoari lotutako enpleguari buruzko urteroko azoka finkatzea.
- Turismo adimentsuaren kudeaketarako Hodeian plataforma digitala zabaltzea.
- Kongresu eta azokei lotutako turismoaren garapena, fluxu turistikoak urtaroen menpe egon ez daitezen ekitaldi, azoka eta kongresu gehiago egin daitezen.
- Hiriburuak sortzen dituen soberakin turistikoak lurralde osoan barreiatzeko kudeaketa strategiaren finkatzea eta garatzea.
- San Sebastian Turismo eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko turismo bulego bateratua garatzea, erakunde bakoitzak bere gain hartzen dituen arreta zerbitzuen osagarritasuna lortzeko.
- Gipuzkoako Turismoaren Mahaia dinamizatzea, sektorearen gobernantza parte-hartzailerako organo gisa.
- Barnealdeko eskualdeetan turismoa sustatzeko politikak garatu, lurralde oreka eta bidaia esperientzia hobetuko dituzten nekazalturismo ereduak eta produktu turistikoak sustatuz, kontuan edukiz kirolari, kulturari eta ondareari lotutako jardueretan arreta berezia jarritz.
- Ekotasa turistiko baten ezarpena bultzatu, turismoak sortzen dituen onurak alor publikoan ere eragin dezan.

1.4.3. Merkataritza. Auzo, herri eta hirietako ekonomian, bizitzan eta izaeran eragin zuzen eta garrantzitsua duen sektorea da merkataritza. Azken urteetan, bizimodu eta kontsumo ohituren

aldaketei eta eraldaketa teknologikoei lotuta, asko sufritzen eta aldatzen ari den sektorea da. Sektore gisa, lekuan lekuko merkatariek eta tamaina ezberdinetako negozioek dituzten beharrei erantzuten lagunduko dugu:

- Tokian-tokiko merkataritza sustatzeko politikak martxan jarriko ditugu lurralde guztian.
- Merkataritzaren profesionalizazioa eta espezializazioa sustatuko dugu, plan berezi baten bitartez.
- Bertako merkataritzaren modernizazioa bultzatuko dugu, salmentarako kanal berriak ahalbidetuz eta lagunduz.
- Merkataritzaren jarraipena bultzatuko dugu, errelebo prozesuetarako laguntza egokitua eskainiz.

1.4.4. Nekazaritza. Ekonomiaren tamaina guztian txikia izan arren, berebiziko garrantzia du lehen sektoreak lurraldearen orekaren, biodibertsitatearen, elikaduraren, paisaiaren kudeaketaren eta kulturaren ikuspegitik begiratuta. Lurraldearen garapenerako eta etorkizunerako ezinbesteko jarduerak dira nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza. Eta jarduera estrategiko bereziak diren heinean, tratamendu berezia, laguntza eta sustapen guztia behar dute. Hauek dira aurrera eramango diren neurri nagusiak:

- Sormena, berrikuntza eta talentu berriak sustatzea, sektorean arnas berria, ideia berritzaileak, eta ikuspuntu berriak ekarri ditzaketen dinamikak sortu eta areagotzeko.
- Nekazaritzako Think Tank-a, NekazalLab, bultzatzea.
- Lehen sektoreari ikusgarritasuna emateko estrategian sakontzea: komunikazio plan integrala, kontzientziazio ekintzak eta feria berri bat bultzatzea.
- Errentagarritasunean sakontzea, dauden diru laguntzak indartuz.
- Sektoreko erakunde desberdinen azterketa eta berrantolaketa plana sustatzea, beste Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.
- Lehen sektoreko aholku kontseilu bat sortzea, araudi desberdinek xedatutakoa betez, partaidetza eta gobernantza modu berriekekin bat eginez.
- Belaunaldi aldaketa sustatzea, ohiko irizpideez gain, gazte plana eta baserrien eskualdatze plana eginda.
- 2020-2025 Europako Landa Garapen Programa Jasangarria: Aldundiaren etorkizuneko lan-ildoak lantzea harekin bateragarri diren ildoan betiere.
- Baserria CO2 Xurgatzaile plana garatzea, isurketak gutxitzeko neurriak eta pizgarriak jarrita.
- Baso sektorea indarberritzeko eta prestigioa emateko plana egingo da.
- Banda marroien kalteei ahalik eta modu eraginkorrean aurre egiteko plan integrala sustatuko da.
- Ehiza arautu eta kontrolatuaren balioa defendatu eta azalduko da eta ehizako federazioarekin elkarlana indartzea eta eraginkorrago egitea bultzatuko da datozen erronketarako.
- Mendiko larreen kudeaketa berregokitu, abeltzain profesionalak erabiltzen dituzten mendiak lehenetsiz eta Udalekin eta ETORLUR-ekin elkarlana bultzatuz.
- Babestutako eremuen kontserbazio eta kudeaketa baserritar eta abeltzainei dagokienez, haien bizi eta lan baldintzak hobetzen jarraitzea.
- Landa eremuan sustatuko diren plangintza estrategikoetan genero ikuspegia txertatzea, landa eremuko emakumeen egoeraz egindako azterketa sozioekonomia oinarri hartuta.

1.5. LEHIAKORTASUNERAKO POLITIKA FISKALA. Fiskalitatea Foru Aldundiaren eskumen nagusia eta bereizlea da. Tresna gisa, aberastasuna bildu eta banatzeko ez ezik, sortzen laguntzeko ere balio du.

Politika fiskala ekonomiaren sustapenerako tresna da, lehiakortasuneko faktore nagusietakoa da eta, beraz, tresna hori zorrotz eta buruz kudeatuko dugu, lurraldeak aberastasuna sortzeko gai izaten jarrai dezan eta gipuzkoarrok orduan eta ongizate hobea izan dezagun. Zerga sistema gero eta justuago, progresiboago eta bidezkoago baten aldeko apustuari eutsiko diogu, guztiok norberaren gaitasun ekonomiaren araberako ekarpena egin dezagun. Politika publikoak, bereziki Ongizate Estatu definitzen duten horiek, finantzatu ahal izateko beharrezko baldintzak bermatuko dituen zerga sistema bat:

- Pizgarri fiskalak ezartzea, enpresetan pertsonak garatu eta talentua erakartzeko.
- Gipuzkoako enpresen erabakitzeko guneak bertan sendotzeko langileek partaidetzarako fiskalitatea hobetzen jarraituko dugu.
- Jaiotze-tasa pizteko balio duten zerga pizgarrietan sakontzea.
- Enpresetan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko fiskalitatea lantzen jarraituko dugu.
- Sozietateen Gaineko Zergan enpresen lehiakortasunera bideratutako inbertsioetako pizgarriak sendotzea.
- Enpresen kapitalizazioa indartzeko politika fiskalarekin jarraitzea, garai txarretarako sendoago egon gaitezten.
- Ikerketa eta garapena sustatzen jarraitzeko pizgarriekin segitzea.
- Enpresek dimentsionatzeko beharrezko duten finantziazioan laguntzeko pizgarriak lantzea.
- Kalitatezko enplegua sustatzeko pizgarriak garatzea.
- Ingurumena enpresen lehiakortasun faktore gisa indartzeko estrategia lantzea.
- Sozietateen Gaineko Zerga garatzen jarraitzea, sinplifikatzeko aukerak aztertuz.
- Enpresek Ogasunarekin dituzten betebeharrak modu erraz eta azkarrean betetzeko teknologia garatzen jarraituko dugu.
- Ekintzaileen eta enpresa berrien fiskalitatea egokituko dugu bidea errazago egiteko jarduera berrientzat.
- Pizgarri fiskalak landuko ditugu inbertsioa lurraldeko jarduera berrietara bideratzeko; pizgarriak aplikatuko dira pertsona fisikoen errentaren zergan eta sozietateen gaineko zergan.
- Business angel, crowdfunding eta venture capital bezalako finantzazio iturri ezberdinak aztertu eta nazioarteko eredu onenak landuko ditugu, jarduera berriak finantzatzeko.

1.6. BIDE ETA GARRAIO AZPIEGITURAK. Azpiegiturak dira ekonomia lehiakorra egiten laguntzeko eremu publikoak dituen baldintza material nagusiak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko bide-azpiegitura sarea aldagai garrantzitsua da lurraldeko mugikortasunerako eta enpresen lehiakortasunerako. Behin gaitasun handiko sarea osatuta, mugikortasun sisteman, sarearen modernizazio adimentsuan eta bideragarritasun ekonomikoan sakondu behar da, datozen urteetan pertsonak eta enpresek izango dituzten

beharrei erantzuteko. Bestalde, jarduera ekonomikorako lehiakortasun faktore diren lurraldeko beste garraio azpiegiturak, dagokion neurrian eta duen ahalmenarekin, indartzen saiatuko da Foru Aldundia.

1.6.1. Errepide sarea osatzea eta garatzea. Behin Gipuzkoako gaitasun handiko errepide sarea amaituta, jarduera ekonomikoa indartzeko balio dezaketen beste hainbat lotura eta inbertsio egingo dira, sarearen beraren bideragarritasuna indartzuz:

- Gipuzkoako errepideen PTS-a garatzea, Gipuzkoako lurralde orekaren hobetzearen beharrak zehaztuz.
- Orain arteko gaitasun handiko errepideen eraikitze ikuspegitik, gaur egungo mantentze eta hobetze beharretarako puntako tresnak eta plangintzak sortu eta abian jarri.
- Errepide sare osoaren finantzazioaren gaineko politika finkatzen jarraitzea, ibilgailu astun zein arinentzat bidesarien bitartez.
- Bidesari eta errepideen informazioaren kudeaketarako free flow sistema, Gipuzkoan aitzindaria, sarean hedatzea.
- A-15eko tunelak berritzea.
- Andoainen A-15 eta N-I aren arteko lotura berriaren proiektua egin eta eraikitze fasea hastea.
- Azkoitia-Urretxu GI-631 errepidearen hobekuntza lanen lehen fasea burutzea.
- 27. Poligonoa eta Astigarraga arteko errepide berria gauzatzea.
- Marrutxipiko sarrera berria GI-20-tik gauzatzea Donostiako Udalarekin elkarlanean.
- GI-632 (A-636) errepidean bidesaria ezartzea.

1.6.2. Errepide sarearen digitalizazioa. Mugikortasun arloan datorren eraldaketa sakonera errepide sarea egokitzen joateko lan ildoak landuko da, hainbat ekimen, proiektu eta berrikuntza sustatuz:

- Ibilgailu berrien (elektriko, autonomo...) inguruan bide azpiegiturek eskatzen dituzten berrikuntzak identifikatzea eta probatzea.
- Errepide adimentsuetan oinarriturik, kudeaketa prozedura definitzea.
- Zaintza Teknologikoa egitea ibilgailu mota berrien etorrerarako Gipuzkoako azpiegiturak prestatuak egon daitezen.
- Ibilgailu adimentsuak azpiegiturekin konektatzeko Europako proiektu pilotu berriak esperimintatzea eta gauzatzea, "C-Roads"-en baitan; eta ITS edo Garraio Sistema Inteligenteen arloak ekintzaileak izatea.
- Gure errepide sarea 'living lab' bihurtzea Gipuzkoako enpresek beraien produktu eta teknologiak probatzeko.

1.6.3. Garraiobide berriak. Aireportua, portua eta trenbide sarea ere lurraldearen jarduera ekonomikorako baldintza eta aldagai garrantzitsuak dira. Foru Aldundiaren eskumena ez izan arren, ahal duen neurrian horiek indartzeko lan egingo du:

- Abiadura Handiko Trena eta Donostialdeko Topoa martxan jartzeak trenbide sare guztian dakartzan aldaketak ekonomia jarduera indartzeko bultzatzea.
- Pasaiaiko portua indartzea Portu Agintaritzarekin eta gainerako erakundeekin elkarlanean, portuaren jarduera ekonomikoa indartzeko eta badiaren biziberritzearekin legealdian abiatutako bidean jarraitzeko.
- Gipuzkoaren konektagarritasunak, Renfe eta Euskotreneko trenbide sareaz eta errepideko garraiorako zerbitzu publikoez gain, Donostia-Hondarribiako aeroportuan beste gune garrantzitsua dauka, lurraldeko sartu-irtenak bideratzen dituena. Horregatik, eta aisialdiari eta negozioei lotutako turismoaren industriari zor diogulako, aeroportuaren etorkizuna bermatuko duten neurriak babesteko prestutasunari eusten diogu, AENArekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Hondarribia eta Iruneko udalekin elkarlanean. Bidaiari kopurua pixkanaka gora egiten ari den une hauetan, Donostiako terminala finkatu behar dugu, ez bakarrik gipuzkoarrentzako irteera eta iritsiera ate gisa, baizik eta bisitari eta turistentzako erreferentzia bezala, baita ere. Pakete turistiko eta hegaldi charterrak areagotu behar dira eta Madril eta Bartzelonako txartelak merketzea lortu behar dugu. Halaber, Londreserako hegaldia berreskuratu behar dugu, etenik gabe, udako bi denboralditan martxan egondako lotura hura, alegia.

1.7. EKARPEN LEGEAREN ERREFORMARAKO AKORDIOA LORTZEA GAINERAKO EUSKAL ERAKUNDEEKIN. Gipuzkoako Foru Aldundiak, herri ikuspegi batetik abiatuz, Eusko Jaurlaritzari Lurralde Historikoei egiten dioten ekarpenaren lekuko, Foru Aldundiek egin beharreko ekarpenen banaketa bidezkoa ezarriko duen Ekarpene Lege eredu baten alde egiten du. Horrela, eredu horizontalari dagokionez, Lurralde Historiko bakoitzari dagozkion parametroak adostu eta ezarri beharko dira, Lurralde Historikoen Legeak lurralde bakoitzaren errealitate ekonomikoa eta bakoitzaren zerga bilketa historikoa oinarri hartuta ezarritako irizpideak modu objektiboan jarraituz. Eredu bertikalari dagokionez, erakunde amankomunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko egungo eskumen banaketa kontuan hartu beharko da.

GIZARTE POLITIKAK

2. HELBURUA: GIZARTE POLITIKEN ERAGINKORTASUNA ETA BIDERAGARRITASUNA BERMATZEA

Gizarte babeseko sistema egokitzea, beharrian sozial berriei erantzuteko eta biztanleriaren zahartzeak sortutako erronkei eta mundu irekian ditugun gizarte premia berriei gizalegez, justiziaz eta arduraz erantzuteko, etorkizuneko ongizatea bermatuko duen bideragarritasuna ziurtatuz.

Herri aurreratua izaten jarraitzeko gizarte sendoa edukitzea ezinbestekoa dugu. Horrek esan nahi du, gizarte kohesio handia, desberdintasun txikiak, babes sistema justua eta gizarte integratzailea behar ditugula. Gure etorkizuneko gizarteak eta sistemak ahalbidetu behar dute ongizatearen trenetik kanpo ez dela inor geratuko eta geratzeko arriskua duenari lagunduko zaiola. Behar duten pertsona guztiei beren autonomia osatzen eta bizi kalitatea hobetzen lagundu behar die gizarte babeseko sistemak.

Gizarteko aldatetek (populazioaren zahartzeak, familia egituren transformazioek, balio eta bizimodu-aldaketek, etab.) eta mundu irekian egoteak (migrazio fluxuak, aniztasunak, interdependentziek) gizarte erronka handiak eta premia berriak sortu dizkigute. Egoera berriei eta etorkizunean datorkigunari erantzuteko prestatu behar dugu gure gizarteko babes sistema.

Horretarako, ezinbestean denok batera joan behar dugu. Elkarlana da bide egokiena, eragingarriena eta justuena: herritarren, gizarteko erakundeen, erakunde publikoen eta enpresen arteko elkarlana bultzatu behar dugu. Norbanako, gizarte zibil, eta erakunde publiko sendoak behar ditugu etorkizuneko gizarte beharrei ondo erantzuteko. Gutako bakoitzaren eta guztion ardura kolektiboa da inor atzean gera ez dadin lortzea, eta erakunde publikoak dira horren bermatzaileak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak etorkizuneko gizarte beharrei erantzuteko helburu nagusi bat eta lehentasunezko bi lan-ildo ezartzen ditu. Helburu nagusia da: etorkizunean gipuzkoar denon ongizatea bermatuko duen ahalik eta desberdintasun sozial txikieneko gizartea elkarlanean lantzea, gizarte babes sistema bideragarria bermatuz. Eta lehentasunez, horretarako, bi lan-ildo ditu:

1. Gizartea indartzea, pertsonak, familiak, komunitateak, hirugarren sektoreko erakundeak, enpresak eta gainerako eragileak gizarte babes sistemaren erdigunean jarrita.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte politika publikoak egokitzen jarraitzea datozen erronka eta beharrei eraginkortasunez, gizalegez, zorrotasunez eta justiziaz erantzuteko, eta etorkizunean babes sistema publiko bideragarria edukiko dugula bermatzeko.

Etorkizuneko Gipuzkoan pertsona askeek osatutako gizarte kohesionatua, integratzailea eta desberdintasun gutxikoa nahi dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiak badu horretarako bide-orria eta sinetsita dago etorkizuneko guztion ongizatea bermatzen asmatuko dugula, gizarte babeseko sistema gizalegez sendotuta.

Horretarako guztirako, 2019-2023 agintaldirako, gizarte kohesioa eta babesa indartzeko honako lan-ildoak finkatzen dira:

2.1. GIZARTEA INDARTZEA KOMUNITATEA ARDATZ. Gipuzkoar gizartea norbanakoen batuketa baino gehiago da; guztion artean osatzen dugun komunitatea gara. Gizarte beharrei erantzutea gizartearen

beraren eta norbanakoon ardura da, eta erakunde publikoak berme dira, horretan laguntzeko eta premiei erantzun ezin dieten pertsoneri laguntza ahalbidetzeko. Hori horrela izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitekoa da gizarte babesa gipuzkoar guztiei bermatzeaz gain, horretarako Gipuzkoako gizartea sendotzea. Horrek esan nahi du, balio individualistak indartsuak diren garaiotan ere, komunitatearekiko erantzukizuna bultzatu behar duela hiritarren artean. Pertsona, familia, auzo-herri, elkarte, enpresa eta gizarteko gainontzeko egiturak gizarte beharrei dagokien neurrian erantzuteko ahalduntzea eta elkarlana sustatu behar ditu.

2.1.1. Ekimen komunitarioa sustatzea. Komunitatetik sortutako ekimenak indartzeko eta komunitatea beharrei erantzunak emateko ahalduntzen jarraitzeko, gisa honetako egitasmoak babestuko dira:

- Auto-antolaketa komunitarioko formulak sustatzea, tokiko eta gertuko elkartasuna sustatuz eta boluntarioei baliabideak emanez. Nabarmentzekoa pertsonaz pertsonako boluntarioritza.
- Komunitateak ahalduntzea lagunduko duten ekimenak diseinatu eta garatzea, eta herritartasun aktiboaren ideia martxan jartzea.
- Hiritarren borondatezko inplikazioa sustatzea garapen komunitarioko lanetan.
- Gizarte kohesioa dinamizatzeko balio duten proiektuak sustatzea: Bizilagun sarea, Etxean bizi...
- Gizartearen sentsibilizazioa sustatzea ardura komunitarioaren alde, gizarte zerbitzuen alorrean.
- Gipuzkoako boluntarioritza sustatzeko estrategia bat diseinatu eta abian jartzea.

2.1.2. Gizarte ekimena sustatzea. Gizarte ekimenetik sortutako hirugarren sektore sozialarekin lankidetzak indartuko da, hura babestuz eta sustatuz:

- Elkarrizketa Zibilerako mahaia sustatzea, elkarrizketa zibilerako organo gisa, hirugarren sektore sozialaren eta Foru Aldundiaren artean. Hauek dira helburuak:
 - Hirugarren sektoreko politiken ildo nagusiak definitzea, bai eta gainerako politika publikoak, ordezkaturiko erakundeen eta Aldundiaren artean adosturikoak.
 - Partekatutako hausnarketak sustatzea, hirugarren sektore sozialeko lan arloei buruz.
 - Lurraldeko hirugarren sektore sozialeko erakundeen eskaerei erantzuna ematea.
- Gipuzkoan hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategia garatzea, eta bereziki:
 - Gipuzkoako boluntarioritza sustatzeko estrategia bat diseinatu eta abian jartzea.
 - Hirugarren sektore soziala babestea beraien egoitzak eta lokalak eraiki edota berritzeko. Horretarako, baliabideak erraztuko ditugu laguntza planen bitartez. Gizagunea berritzea.
 - Hirugarren sektore sozialeko eta boluntarioritzaarako laguntzak handitzea, beraien berrikuntza proiektu eta jarduerak garatzeko.

- Lankidetzza publiko-pribatua indartzea inbertsio handiko proiektuak gauzatzekoan, gizarte ekimenarekin lankidetzan aritzeari garrantzi berezia emanez.

2.2. GIZARTEAREN ZAHARTZEARI ERANTZUTEKO EREDU INTEGRALA. Zorionez, gero eta urte gehiago bizi gara. Baina horrek gizarte gisa dugun erronka nagusietakoa ere badakar: gero eta adineko pertsona gehiago dago gure artean, eta horrek behar eta erronka berriak sortzen ditu, gizarte egituretan, funtzioetan eta antolaketan. Erantzuna modu integralean eman behar zaio, pertsona bakoitzaren askatasuna eta erabakitze eskubidea erdigunean jarrita, eta gizarteko ikuspegi zabalarekin. Adineko pertsonen ongizatea helburu nagusi izanik, gizarte bezala zahartzeak eragindako desafio guztiei modu zabal eta osoan erantzungo diegu: zaintza ereduetatik osasun arretara, aisialdi aukeretatik hirigintzara, funtzio sozialetatik asebetetze indibidualetara.

2.2.1. Etxean arreta integrala. Konbentziturata gaude pertsonaren bizi kalitate handienerako eremu gertukoena, etxea, dela egokiena. Horregatik, ahal den neurrian etxeko arreta indartzeko politikak sustatuko dira:

- Etxeko arreta zerbitzua hobetzeko plana diseinatu eta martxan jartzea, eta iraupena sustatzea, erreferentzia gisa arlo horretan ezarritako programa pilotuak hartuz (Etxean bizi, Ok en casa...), bai eta laguntza teknikoak berritzea ere.
- Emandako arretaren jarraipena egitea, bai eta mendekotasunerako laguntza ekonomikoen onuradunen egoerarena ere.
- Sendian programa indartzea, menpekotasun egoeran dauden zaintzaile ez profesionalei laguntzeko.
- Zahartze osasuntsu eta aktiboa sustatzea, Adinberri estrategiaren bitartez.
- Belaunaldien arteko lotura sustatzea, ezagutza transmititzeko, zahartze aktiborako, ikaskuntzarako, eta isolamendua eta bakardadea arintzeko.
- Estrategiak genero ikuspegiarekin garatzea, familiakoak zaintzen ari direnek zaintza lanengatik gero eta zailtasun gutxiago izan ditzaten profesionalki garatzeko.

2.2.2. Egoitzetako arreta: etxean ez bada, etxean bezala. Pertsonaren zaintza erdigunean jarrita, eta etxeko egoerara gerturatzeko helburuz, egoitzetako eredu egokitzen joango gara:

- Egoitzen diseinu arkitektonikoa eboluzionatzea etheen antz gehiago duen eredu batera.
- Egoitza gehiago adineko pertsonentzat:
 - Eibar -planta sozio-sanitarioa-, 2019; Arbes (Irun), 2021; Elgoibar, 2021; Usurbil, 2021; Pasaia, 2022; Zarautz 2022; Ordizia, 2023; Urnieta, 2023.
 - Egoitzak handitzea: Lasarte (Atsobakar), Tolosa (Uzturre), Zumaia (San Juan) eta Eibar (Egogain).
- Adineko pertsonentzako egoitzetako zerbitzuen eta ratioen katalogoa berrikustea, pertsonak ardatz dituzten arreta-eredu malguak lortzeko asmoz.

2.3. PERTSONAK BABESTU ETA GIZARTERATZEA. Ongizatea guztiontzat ahalbidetuko duen gizarteak bereziki babestu behar ditu gizarte-egoera ahulenetan eta zaugarrienetan dauden pertsonak. Pertsona horietako bakoitzaren egoera eta baldintza guztiak kontuan harturik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, erakunde

publiko bermatzailea den heinean, bi helburu nagusi ditu bakoitzarentzat: giza duintasunean bizi ahal izan dadin beharrezko baliabideen bitartez babestea eta gizartearen partaide bihurtzeko bidean laguntzea. Babestea eta gizarteratzea elkarri lotuta joan behar duten elementuak dira, beti ere pertsona bakoitzaren askatasuna eta duintasuna lehentasunezko izanik. Gure gizartean ezin dugu onartu inor bazterkeria egoeran egotea. Kohesioa handitu eta gizarte desberdintasunak murriztu nahi ditugu, eta horregatik beharra dutenak babestu eta gizarteratu nahi ditugu. Horretarako bide nagusia kalitatezko enplegua da.

2.3.1. Gizarte zaugarritasun egoeran dauden pertsonen gizarte inklusioa lantzea. Beti ere pertsonaren askatasuna eta autonomia errespetatuz, baina gizarteratzeko bidelagun pertsonalizatua izanik:

- Enpleagarritasun eta aktibatze inklusiboaren estrategia ezarri eta hedatzea. Elkar-EKIN LANEAN:
 - Gizarteratze arloko enpresak eratzea: ekintzailtza eta barne-ekintzailtza lagundu eta finantzatzeko programak sustatzea gizarteratzeko enpresei laguntzek. Arreta berezia jarriko da lurralderako aukera diren sektoreetan: hiriko mantentze-lanak, ehungintza, kontratazio publiko berritzailea, azpikontratazio industrialak, zaintza eta zerbitzu pertsonalen ekonomia, ostalaritza, ekonomia zirkularra eta hondakin handien kudeaketa, eraikinak birgaitzea...
 - Elkar-EKIN LANEAN berrikuntza eta inklusio zentroa diseinatu, planifikatu eta martxan jartzea, estrategiaren garapenerako.
- Elkar-EKIN Plana, Gipuzkoako gizarteratze agenda finkatzea. Plan berri bat eratu eta aurkeztea.
 - Baztertze-egoeran dauden pertsonen arreta hobetzea: 24 plaza dituen zentro berri bat irekitzea, baztertze egoera larrian dauden edo behar soziosanitarioak dituzten pertsonentzat.
 - Kohesio eta aktibatze inklusiborako proiektuak sustatzea: boluntarioen eta hirugarren sektore sozialaren rolari buruzko plan bat lantzea, gizarteratzeko arrakastaren gako gisa, bai eta aktibazio inklusiborako ere, aisian, kulturean, parte-hartze zibikoan eta komunitarioan oinarrituriko tresnen bitartez.
 - Bestelako babes sistemekin dugun koordinazioa indartzea, zeharkako prozesuak sistemizatuz, bestelako zerbitzu publikoekin lankidetzan baztertze egoera horiei aurre eginez.
 - Herritarrei jakinaraztea eta horiek sentsibilizatzea Gipuzkoako gizarteratzeari buruz, horretarako diseinaturiko plan baten bitartez.

2.3.2. Indarkeria matxistaren biktimak laguntzeko eta babesteko sistema indartzea. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazle gordinenari, indarkeria matxistari, aurre egiteko babes sistema indartuko da:

- 30 pertsonentzako zentro berri bat martxan jarriko da, indarkeria matxistaren biktimei laguntza integrala eta berritzailea emateko eredu oinarrituta, ikuspegi pertsonalizatu, ahaldundu eta feministarekin.

- Indarkeria matxista prebenitu eta tratatzeko protokoloa ezartzea lurraldeko mendekotasun eta desgaitasunen arretarako zentroetan.
- Arreta sozio-juridiko eta psikosozialaren zerbitzu berri bat ezartzea, indarkeria matxistaren biktimei eta egoera babesgabeen dauden pertsonentzat.

2.3.3. Adin txikikoen babes sistema hobetzea. Haur eta adin txikikoen babes sistema egungo beharretara egokitu eta hobetzeko hainbat ekimen burutuko ditugu:

- Babesik gabeko haurrak artatzeko plan integral bat prestatzea, babesgabetasunaren prebentzioa indartuz.
- Familia harreraren eskaintza dibertsifikatu eta berriz dimentsionatzea.
- 48 etxebizitza irekitzea gazteak emantzipatzeko, formazioa eta enplegua landuz.
- Esku-hartze sozialerako prozesu malguago eta pertsonalatuagoak diseinatzea, autonomia eta gizarteratzea sustatzeko adin-nagusitasunarekin eten gabe eta formazioa, enplegua eta etxebizitza uztartuz, gizarteratzeko gako gisa.
- Egoera babesgabeen dauden gazteei arreta emateko zentro bat irekitzea.
- Familia harrerako topagune berri bat martxan jartzea.

2.4. GIZARTE BEHAR BERRIEI ERANTZUTEN BERRIKUNTZA SUSTATzea. Mundu ireki, aldakor eta interdependentean, behar berriak etengabe eta oso azkar sortzen dira transformazioan dagoen gure gizartean: migrazio fluxu aldakorrak, kultura aniztasuna, gertaera globalen eraginak, etab. Horiek guztiak gizarte behar berriak edo ezberdinak sortzen dituzte. Horiei erantzuteko, gure herriko solidaritate, gizatasun eta gizalegeko, printzipio eta balio sendoen gainean, ezinbesteko berrikuntza eta malgutasuna behar dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiaren hainbat gizarte politika berrikusi, berritu edo sortu behar dira egoera berriei erantzuteko.

Beharrezkoa da ikuspegi oso, transbertsal eta sakona edukitzea, egungo eta etorkizuneko gizarte arazoak aurreikusteko, diagnostikatzeko eta tratatzeko. Horrek ekarriko du, gizarte eraldaketekin batera datozen arazo eta erronka berriei erantzun berritzaileak, eraginkorrak eta jasangarriak ematea, eta horrela, gizarte zerbitzuak hobetzea:

- Gizarte Politiken Laborategia sortzea. Haren bitartez, gizarte zerbitzuen sektoreko eragileek gero eta gehiago jardungo dute komunitate eta ezagutza sare gisa, hala, teknologia eta gizarte berrikuntzak sustatzeko.
- Berrikuntza eta ikerketa soziala beste jarduketan eremu batzuetan sustatzea (gizarte inklusioa, babesa, aniztasun funtzionala...), pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

2.5. ERAGINKORTASUNA, BIDERAGARRITASUNA ETA ZORROZTASUNA LANTZEA. Gizarte beharrei erantzuteko sistema guztiaren oinarrian, gure gizartearen solidaritate eta elkarlaguntasun balioak daude. Aberastasuna sortzeko gai den gure herriak aberastasun hori birbanatzen du gizartean gehien behar dutenak ez daitezela ongizatearen trenetik kanpo geratu. Gure gizartearen aberastasun handiena



horixe da ziurrenik: herri bezala aurrera egiteko elkarrekiko dugun elkartasuna. Horregatik, sistemaren bermatzaile den herri-erakundeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berezko ardura nagusi du sistema bera etorkizunean bideragarri izan dadin bermatzea. Hori lortzeko, sistemak ezinbestean eraginkorra izan behar du, modu egokian erantzuten dielako gizarte beharrei; zorrotza izan behar du, gizarteak eskuzabaltasunez emandako baliabideak modu justu eta ekitatiboan inbertitzeko; eta etorkizunari begira bideragarria izan behar du, hala ez izateak sistema osoa kolokan jar dezakeelako. Horiek horrela, datorren agintaldiko lan ildo garrantzitsua izango da etorkizuneko sistemaren jasangarritasuna lantzea, sistemaren zorrozatasuna kontrolatzea eta hobetzea injustiziarik egon ez dadin, eta gizarte politika eraginkorrak egitea benetako beharrei ahalik eta egokien erantzuteko.

GOBERNANTZA KOLABORATIBOA

3. HELBURUA: GOBERNANTZA KOLABORATIBOAN SAKONTZEA

Etorkizuna Eraikiz-en gobernantza ereduko esperientzian sakontzen jarraitzea, Foru Aldundia, Gipuzkoako eragileak eta gipuzkoarrak elkarlanean, etorkizuneko proiektu kolektibo partekatua lantzen jarraitzeko.

Egungo munduan, eta gurea bezalako gizarte aurreratu batean, balio publiko handia sortzeko eta zerbitzu publikoa modu eraginkor eta egokian eskaintzeko, erakunde publikoek elkarlana ezinbestekoa dute. Gainera, Gipuzkoan auzolaneko eta elkarlaneko kulturak tradizio luzea du eta jakin izan dugu garaian garaiko beharretara egokitzeko moduak topatzen. Politikak oro har, eta erakunde publikoekiko harremanak berariaz, desafekzio eta urruntze garaiak bizi ditu herritarrengandik. Horri buelta ematen saiatzea eta gipuzkoarrak Foru Aldundiaren parte bihurtzea lehentasunezkoa izan da. Horretarako bidea gobernantza kolaboratiboa praktikatzeta eta indartzea izan da.

Azken legealdiko helburu nagusietakoa izan da gobernatzeko moduetan elkarlaneko ereduak, irekiak eta parte hartzaileak sustatzea; egiteari ez ezik, egiteko moduari sekulako garrantzia eman dio Foru Gobernuak eta ekintza publiko ororen erdiko ardatzean egon da gobernantza kolaboratiboa. Gipuzkoako herritarrekin, gizarte zibileko eragile ezberdinekin eta beste erakunde publikoekin elkarlanean gobernatzeko saiakera zintzoa eta serioa izan da, apustu eginik, hori delako onena lurraldearen etorkizunerako.

Ildo honetan, egitasmo berri, sakon eta berritzailea martxan jarri eta garatu da: Etorkizuna Eraikiz. Lurraldearen geroa elkarrekin diseinatzeko eta lantzeko ariketa zabalak ikerketa, hausnarketa, berrikuntza, esperimentazioa eta politika publikoen kokreazioa sustatu eta ahalbidetu ditu. Foru Aldundiaren I+G unitate gisa, gobernantza kolaboratiboa benetan praktikatzeko espazio eta aukerak eskaini ditu. Egun, Etorkizuna Eraikiz errealitate ilusionatzaile eta sendoa da, gobernantza kolaboratiboaren kasu eta ikur nabarmena gurean eta kanpoan.

Egindako bideari jarraipena emanaz, ikasitakoari eta eraikitako sare eta harremanei jarraipena emanaz, erronka da gobernantza kolaboratiboan sakontzen segitzea. Hori da, zalantzarik gabe, balio publiko gehien sortuko duen administrazio publiko eraginkorra izateko bidea eta herritarren konfiantza areagotzeko modua.

3.1. GOBERNU ONEAN SAKONTZEA. Gobernantza kolaboratiborako aurreko pauso ezinbesteko gisa, berari dagozkion funtzioetan gobernu onaren ezaugarriak landu eta garatzen segi behar du Foru Aldundiak. Kudeaketa zorrotz eta efizienterako beharrezko diren neurriak hartzen jarraitu behar da, balio demokratiko eta publikoak indartuz.

- Jarduera publikorako kodigo etikoak egokitzea eta garatzea.
- Gardentasuneko protokoloak eta neurriak sakondu eta areagotzea.
- Baliabide publikoen erabilera egokia eta neurrikoa bermatzeko jarraipen eta kontrol sistema indartzea.

- Politika publikoen eraginkortasuna ebaluatzeko eta hobetzeko sistemak aztertu eta birpentsatzea.
- Nazioarteko gobernu onari buruzko irizpide eta gomendio aurreratuenak jarraitzea eta betetzea.

3.2. ETORKIZUNA ERAIKIZ EGITASMOA INDARTZEA. Gobernantza eredu ireki eta elkarlanekoaren oinarritzeko ekimena da, eta gauzak egiteko modua eraldatzen ari da Gipuzkoan. Hain zuzen ere, estrategia berri honek lurraldeko 20.000 pertsona baino gehiagorekiko elkarlana ahalbidetu du pasa den legealdian.

Etorkizuna Eraikiz-ek gogoeta sustatu nahi du epe ertain-luzera begira, gobernantza ireki eta elkarlaneko baten bitartez politika publikoak birbideratzen laguntzearen. Agente anitzen arteko gogoeta dinamika horrek epe luzera begiratzen du, eta gogoeta partekatua bultzatzen du, hainbat gai harturik aztergai, hala nola: lurraldearen etorkizuna, etorkizuneko erronken gaineko ezagutza sortzea eta transmititzea, ikaskuntza eta lehiakortasunean oso aurreratuta dauden polo eta eskualdeekin konektatzea, eta Gipuzkoan dugun kapital soziala eta jakintza aprobetxatzea.

Elkarlana ardatz, ikerketa, gogoeta, eztabaida, esperimendazioa eta politika publikoen egokitze-berritzea uztartzen ditu Etorkizuna Eraikiz-en ereduak. Legealdi berrirako erronka da dagoeneko errealitate garrantzitsua den ekimenari jarraipena ematea, martxan dauden espazio eta proiektu ezberdinetan. Etorkizuna Eraikiz indartzea, gure lurraldearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren etorkizuna indartzea izango da.

3.2.1. GipuzkoaLab: gizarte eragileei irekitako espazioa. Esperimendatutako espazio irekia da, elkarlanaren bitartez Gipuzkoako eragileak gizarte berrikuntzako proiektu berritzaileak diseinatzen, lantzen eta probatzen bultzatzen dituen. Guztira 50 proiektu baino gehiago lagundu dira jada, eta bide horretan jarraitzea da erronka:

- Gipuzkoalab dirulaguntza deialdiak egokitzea eta indartzea.
- Sortzen ari den ezagutza eta esperientziaren kudeaketa sistematizatzea.
- Esperimendatutako proiektu berritzaileak sustatzea.

3.2.2. GipuzkoaLab: Foru Aldundiak sustatutako proiektu esperimentalak. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuta, agenda publiko berriko (kontziliazioa, langileen parte hartzea, turismo adimentsua, etxeko zaintza, etab.) bederatzi proiektu esperimental martxan dira dagoeneko. Ildo hori jarraitu eta sendotu nahi da:

- Proiektu esperimental berriak, Etorkizuna Eraikiz-en foro ezberdinetan diseinatutakoak nahiz Foru Aldundiaren baitan sortutakoak, sustatzea.
- Esperimendatutako proiektuak ebaluatzea eta ohiko politika publikoetara inkorporatzeko bidea sistematizatzea.

3.2.3. Unibertsitate sarearekin elkarlana. Gipuzkoan campus-a duten unibertsitate guztiekin etorkizuneko gai estrategikoetan ezagutza sortu eta ikertzeko elkarlana sustatu da. Bide horretan jarraituko da politika publikoen berrikuntzarako ikerketa ezinbestekoa delako eta bertako unibertsitateak horretarako indartzea lehiakortasunerako aldagai garrantzitsua izango delako.

3.2.4. Think Tank-a. Gipuzkoa Taldean ekimenaren baitan, etorkizuneko gogoeta egin eta eztabaidatzeko eragile ezberdinen foroak sortu eta landu dira. Guztira ia 200 gipuzkoar kualifikatuk

identifikatu dituzte etorkizunean lantzeko lehentasunak. Gogoeta prozesu hauen bertutea da, gero esperimentaziora bideratutako proiektuetan gauzatzen direla.

- Think Tank-aren dinamikarekin jarraitzea eta indartzea, parte hartzaileak berrituz.
- Sortutako talde eta sareak elkarlanean jarraitzeko bideak erraztea.
- Think Tank-aren eta esperimentazioko guneen arteko erlazioa sistematizatzea, proiektu berriak azkartzeko eta indartzeko.

3.2.5. Nazioarteko sarea sendotzea. Etorkizuna Eraikiz-en ereduak nazioarteko ezagutza gune aurreratuekin konektatu eta elkarlana ahalbidetzea bilatzen du. Gipuzkoarentzat arlo eta gai estrategikoetan munduan aurreratuenak diren esperientzietatik ikasi eta haiekin harremanak sendotzen jarraitzea lehentasunezkoa izango da.

3.3. GIPUZKOARREN PARTE HARTZE PUBLIKOA HANDITZEA. Gobernantza kolaboratiboa benetakoa izan dadin, ezinbestekoa da herritarrek esparru publikoan parte hartzea eta erakunde publikoarekin harremana areagotzea. Herritarren parte hartzea indartzea gizarte eta lurralde indartsuagoa eta demokratikoagoa sustatzea dira. Horretarako azken Legealdian emandako pausoei jarraituz, gipuzkoarren partaidetza politikoa eta horretarako gaitasuna indartzeko neurriak areagotuko dira:

- Agintaldi osorako Partaidetzazko Programa garatzea.
- Partaidetzarako Udalen Erakunde Arteko Espazioa finkatzea.
- Aldundian eta Aldundiaren politiketan parte hartzea areagotzea, partaidetzazko proiektuak burutuz.
- Herritar eta gizarte erakundeei Aldundiko politika publikoetan parte hartzeko aukera ematea, baliabide, bitarteko eta komunikazio bide berriak eskainiz eta formakuntza bultzatuz (plataforma digitala sortu, gidak sortu, diru laguntzak sustatu, programa berriak landu, formakuntza diseinatu eta burutu).
- Herritarren partaidetza kultura gizarteratzea komunikazio kanal ezberdinak erabiliz (Ataria, aldizkari elektronikoa, Foroak...).

3.4. GIPUZKOAKO UDALERRIEKIN ELKARLANA SENDOTZEA. Gipuzkoa proiektu partekatua da eta lurraldeko udalerrri guztiak dira, hasi txikienetik handienara, eta zaharretik berrienera, garrantzitsu eta ezinbesteko. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Udalak dira erakunde publiko nagusiak tokian tokiko herrigintzarako, eta horregatik, nahitaezkoa da Foru Aldundiaren eta Udalen arteko harremana eta elkarlana sendotzea. Gipuzkoan sakontzen ari garen gobernantza kolaboratiboaren ardatz nagusietako bat da Udalekin eta Udalen artean sustatzeko gai garen benetako elkarlana eta hartu-eman. Hasitako biderei jarraituz, legealdiko erronka da harremanak indartzea eta elkarlana eragingorrago egitea, eta modu horretan, erakundearen arteko gobernantza sistema herritarrentzat hobea izatea.

3.5. GIPUZKOA ELKARLAN PUBLIKOAREN MUNDU MAILAKO EREDU BIHURTZEA. Gobernantza kolaboratiboan egindako ibilbidea, Etorkizuna Eraikiz-en eredu eta Gipuzkoako elkarlaneko kultura eta

gizarte kapitala aprobeztatzuz, Gipuzkoan elkarlan publikorako egindako bidea eredu bezala azaltzea eta mundu mailako erreferente bihurtzea aukera errealak dira. Horretarako unibertsitate sareekin eta nazioarteko sare aurreratuekin konektatuko da, betiere Gipuzkoako eredu erdigunean jarrita, kanpora gure ikasketa esportatzeko eta beste esperientzietatik ikasteko.

ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUA

1. HELBURUA: LURRALDEAREN ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAN JARRAITZEA

Etorkizuneko lurralde adimentsurako espezializaziorantz hartutako bideetan sakontzea erreferentziazko zentroak garatuz eta Gipuzkoako inteligentzia espezializatua, berrikuntza eta ikerketa zientifikoa indartuz.

Europako Batzordeak eskualdeen garapenerako sustatutako RIS3 (*Research and Innovation Strategy for Smart Specialisation*) egitasmoaren baitan, Euskadik bere espezializazio adimentsurako estrategia ezarri zuen. Europako gomendioak jarraituz, eta Euskadiren markoaren baitan, Gipuzkoan gure lurraldearen espezializazio adimentsurako Ikerketa eta Berrikuntza estrategia landu dugu 2015-2019 Legealdian zehar. Lurralde gisa ditugun indarguneak eta aukerak aztertu eta landu ostean, fabrikazio aurreratuan, biozientzietan, elektromugikortasunean, gastronomian, ikus entzunezko sorkuntzan eta klima aldaketan jarri dugu arreta bereziena.

Behin lehentasunak, esparruak eta lan ildoak ezarrita, estrategia garatzeko eta indartzeko erronka itzela daukagu. Lurralde lehiakorra izateko helburuaren baitan, ditugun sektore indartsuak gehiago garatzea eta sektore berriak lantzea ezinbestekoa dugu etengabeko berrikuntza eta ikerketaren bitartez. Gipuzkoako talentua eta inteligentzia lurraldearen espezializaziora bideratuta ditugu elkarlanean, eta bide hori finkatzea eta indartzea da aurrean dugun egitekoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, espezializazioko estrategiak bultzatzen eta horretarako elkarlanak sakontzen, bideratzen eta indartzen jarraituko du, eta horrekin batera, apustu estrategikoak garatuko ditugu.

4.1. ERREFERENTZIAZKO ZENTROAK GARATZEA ETA FINKATZEA. Espezializazio adimentsua bultzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak erreferentziazko sei zentro diseinatu eta abian jarri ditu legealdian zehar. Ekimen publikotik bultzatu eta enpresa, ikerketa sare, zentro teknologiko eta gainerako erakundeekin elkarlanean jaiotako proiektu horiek guztiak errealitatea dira jada. Lehen pausoak emanda, guztiak finkatzea, osotasunean martxan jartzea eta garatzea da legealdi berriko erronka:

4.1.1. Adinberri. Gizartearen zahartzearen erronkari aurre egiteko eta erantzun berritzaileak bilatzeko estrategia partekatua da. Foru Aldundiak sustatuta, eragile ekonomiko eta sozialekin elkarlanean diseinatu da. Pasaian erreferentziazko zentro aurreratua eraikiko da, erresidentzia esperimental bat, berrikuntzako zentro bat eta ekintzaitzako proiektuak uztartuz. Jada martxan daude estrategia, berau garatzeko Fundazioa eta lehen 15 proiektu berritzaileak. Erreferentziazko zentroa eraiki eta martxan jartzea, eta Adinberriren inguruko ekimen guztiak indartzea izango da legealdiko konpromisoa.

4.1.2. Ziur. Industriaren zibersegurtasunerako Ziur zentroa enpresa industrialei 4.0 eta digitalizazio garaian, zibersegurtasunaren gai estrategikoan laguntzeko sortu da. Fabrikazio aurreratuan konektibitatea gero eta handiagoa eta konplexuagoa den garaiotan, zibersegurtasuna lehiakortasunerako aldagai bihurtzen da. Digitalizaziorako eraldaketan Gipuzkoako enpresak egiten ari diren bidean laguntzeko sortu da zentroa, sektoreko enpresa aurreratuekin, industria aurreratuko

enpresekin eta gainontzeko erakunde publikoekin elkarlanean. Jada lan taldea martxan dago eta legealdian zentroaren obrak amaitu eta diseinatutako jarduera eta zerbitzu sorta abiatuko dira.

4.1.3. Mubil. Elektromugikortasunerako zentroak Gipuzkoa eta Euskadi nazioarte mailan mugikortasun elektrikoan eta energia biltegitratzean erreferentziazko industria gune gisa kokatu nahi ditu. Sektoreko enpresekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Donostiako Udalarekin elkarlanean diseinatutako estrategiak eta zentroak Zubietako Eskuzaitzetan izango duten egoitzaren inguruan, elektromugikortasunaren inguruko ezagutza eta berrikuntzako poloa garatuko da. Hori martxan jartzea eta garatzea legealdiko konpromisoa dira.

4.1.4. LABe. Gastronomiari lotutako LABe proiektua Donostiako Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean gauzatu da eta Basque Culinary Center-ek gidatuko du. Tabakaleran kokatutako gunean laborategi digital bat eta berrikuntzako gune bat uztartuko dira, ekintzailtza gastronomikoa jorratu dadin. Lanak martxan daude eta legealdi berrian funtzionamenduan izango da. Legealdiko erronka da proiektua garatzea eta sendotzea.

4.1.5. 2deo. Euskarazko ikus-entzunezko produktuen ekoizpen berritzailea sustatzeko zentroa da. Egungo kontsumo ohituretara egokituta, euskaraz puntako edukiak sortzea sustatuko du, berrikuntza, elkarlana, sorkuntza eta talentua indartuz. Zentroa Tabakaleran egongo da eta egokitzeko lanak abian dira. Martxan jarri, garatu eta emaitzak zabaltzea izango da 2deo-ren legealdiko erronka.

4.1.6. Naturklima. Klima aldaketaren gaiari Gipuzkoako eremutik erantzuteko sortutako zentroa da. Bere baitan bilduko ditu klima aldaketaren behatoki bat, ekonomia zirkularraren bultzada eta trantsizio energetikorako atal bat. Zentroa Zubietako Eskuzaitzetan kokatuko da. Zentroaren egoitza egokitzea eta jarduera multzoa martxan jarri eta garatzea dira legealdirako erronkak.

4.1.7. Koldo Mitxelena berria. 25 urtetik gorako ibilbide arrakastatsuen ondoren, Koldo Mitxelena Kulturunea berritzeko garaia iritsi da. Interneten zabalkundearen aurretik sortua, egindako egokitzapenak gorabehera, eraberritze sakonagoa behar du ekipamenduak. Bere ikur izaerari eutsita, Donostiako erdigunean, KMK berriak espazioak irabaziko ditu erabiltzaileentzat. Publiko berriak jasoko ditu, eta bere nortasuna indartu, etorkizunerantz proiektatuz.

4.2. LURRALDEKO ADIMEN ESPEZIALIZATUAREN ARTEKO ELKARLANA AREAGOTZEA ETA INDARTZEA. Auzolaneko eta elkarlaneko kultura Gipuzkoako gizartearen sustraietan dago eta hori da indargune nagusia proiektu konplexuei erantzuteko ere. Lurraldean dagoen adimena garapen kolektiborako lerrokatzeak eskatzen du sareak eraikitzea, eragile ezberdinen arteko harremanak lantzea, konfiantza eraikitzea... eta azken batean, elkarrekin bide berriak jorratzea. Horretarako lanketa handia egin da jada, baina ezinbestekoa da bide beretik jarraitzea.

- Espezializazio adimentsurako estrategiak diseinatzeko landu diren elkarlaneko dinamikei jarraipena ematea eta indartzea.
- Lurraldeko ezagutza sareak indartzea.
- Landutako harremanei jarraipena emateko foro eta komunikazio bide sistematizatuak ezartzea.
- Elkarlanerako aukera eta proiektu berriak sustatzea.

4.3. SEKTORE ESTRATEGIKOETAN BERRIKUNTZA INDARTZEA. Espezializazio adimentsurako aukeratutako sektoreek badituzte bi dohain: indarguneko abiapuntua edukirik lurraldean, hazteko eta garatzeko aukera handiak izatea. Hori kontuan hartuta, arlo bakoitzean landutako strategiaren baitan eta garatuko diren erreferentziazko zentroen inguruan, etengabeko ikerketa eta berrikuntza bultzatuko dira, horrela sektoreak indartzeko eta jarduera ekonomikoa, aberastasuna eta enplegua sortzeko.

- Sektore estrategikoetako berrikuntza sustatzeko plana garatzea.
- Erreferentziazko zentroen inguruko ekosistema indartzeko strategiak lantzea.
- Sektore horien inguruan aukera berriak identifikatzeko behaketa sistema adimentsua artikulatzea.

MUGIKORTASUNA

5. HELBURUA: MUGIKORTASUN EREDU INTEGRALA HOBETZEA

Garraio azpiegitura ezberdinek (errepide sarea, bizikleta bideak, autobus sarea, Renfe Aldiriko Trena, Abiadura Handiko Trena, Donostialdeko Topoa) ahalbidetzen duten mugikortasun sistema integral eta aurreratua garatzea eta sustatzea.

Hastera doan legealdian, apustu sendoa egingo dugu garraio publiko jasangarriaren alde, garapen ekonomikorako, gizarte kohesiorako, lurralde orekarako eta klima aldaketaren aurkako borrokarako tresna gisa. Negutegi efektua duten gasen isuria murrizteko ahalegina egingo dugu (Gipuzkoako isurien %31 sortzen ditu garraioak), garraiorako azpiegitura eta zerbitzu publikoak modernizatuz, trena bereziki.

Hori horrela, mugikortasun jasangarriaren eta osasuntsuaren aldeko apustuak bost ardatz nagusi edukiko ditu Gipuzkoan:

- Gipuzkoako garraio publiko metropolitarraren eredua osatuko duten tren azpiegiturak garatzea, Loiolako Erriberetako aldageltokia egitea bultzatuz, lurraldeko bi trenbide ardatzak lotzeko funtsezko azpiegitura baita. Renfe Aldiriko Trenaren eta Euskotrenen konbinazioak zerbitzua ematen die lurraldeko herritarren %80ri. Renfe Mugi sisteman integratu ondoren, gainera, erabiltzaileek trasbordoak egin ditzakete Mugiko tarifekin bi operadoreen artean eta integratuta dauden gainerako hiri eta hiri arteko autobusen artean, oso modu garbian Gipuzkoako garraio publikoan intermodalitatea bultzatuz. Espainiako Gobernuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatzea proposatzen dugu, Gipuzkoako Aldunditik Loiolako Erriberetako aldageltoki berriaren finantzaketan parte hartzeko.
- Mugikortasun elektrikoa bultzatzea bere alor guztietan. Garraioan eta konektibitatean elektromugikortasuna bultzatzea da lan esparru nagusietako bat Gipuzkoa Klima 2050, ingurugiro estrategia globalaren eta klima aldaketari aurre egiteko plangintzaren barruan. Lurraldebuseko autobus flota berritzeari ekingo diogu era mailakatuan, 2040. urtean guztiak hibridoak izan daitezen, eta baita Aldundiaren eta horri lotutako entitateen ibilgailu flotaren berritzeari ere, 2050an guztiak energia berdekoak, hibridoak eta elektrikoak izateko.
- MUGI sistema garatzea garraio publikoko eta mugikortasunerako zerbitzu multimodalen euskarri bateratu eta integral gisa. Lurraldebus hobetu eta modernizatu garraio zerbitzu publikoari lotutako behar berriei egokitzeko. Legealdi berri honetan akordio berriak aztertzen jarraituko dugu Gipuzkoako Garraio Agintaritza osatzen duten erakundeekin, hileko 51. bidaiatik aurrera % 100eko deskontuak eskaintzan dituen tarifa bateratua erabiltzaile guztiei zabaltze aldera. Gainera, MUGI birtuala ezarriko dugu; eragiketa guztiak (txartelak erostea eta errekaragak) sakeleko telefonoaren bidez ahalbidetuko du, MUGI txartel fisikoak dauzkan baldintza, deskontu eta tarifa berberekin.
- Bizikletaren erabilera sustatzea, eguneroko garraibide jasangarria eta osasuntsua delako. Donostia-Hendaia mugaz gaindiko loturari ekitea, Jaizubia-Lezo bidegorriaren garapenarekin jarraituz. Gipuzkoa Eurovelo proiektuan sartzea, Europako bizikleta bide nagusiak zehazten dituen eta, gaur-gaurkoz, gure lurraldetik igarotzea aurreikusten ez duena. Halaber, Usurbil-Donostia-Deskarga-Bergara lotura osatzea, eta Eibar-Soraluze konexioaren ikerketetan aurrera egitea. Bide Berdeen biziberritzearen alde egitea, Gipuzkoa eta Arabaren arteko konexioari aurre eginez Vasco Navarro-ren bide zaharretik, Eskoriatatik; eta baita Zestoa-Azpeitia zatia ere, Urolako trenbidetik.

- Donostia-Baiona mugaiz gaindiko Eurohirian tren konexio eraginkor eta arinak martxan jartzea.

KULTURA

6. HELBURUA: KULTURA, TALENTU ARTISTIKOA ETA SORMEN INDUSTRIAK BULTZATU

Gizarte gero eta konplexu eta mestizoagoan, kulturak eta euskarak leku bat ematen digute mundian, gizartearen gaitasun kritikoa garatzen laguntzen dute, eta Foru Aldundiak etorkizunerantz proiektatu nahi duen aberastasun material eta inmateriala ematen digute. Politika publikoetan pisuzko papera eduki dezake, eta eduki behar du kulturak. Ideia horretan oinarritzen da Foru Gobernuak garatuko duen kultur proiektuak. Derrigorituta gaude aurrera begiratzera. Gizartea eraldatzeko palanka, eta aldaketa sozialak kudeatzeko erreminta gisa ulertzen dugu kultura.

Kulturaz ari garenean ez gara ikuskizunetaz, jardueretaz edo aisialdiaz soilik ari, baizik eta gizartea eraldatzeko ideiak proposatzeko kapaza den guztiaz, inplikazio ekonomikoetaz, ikusminak sortzeaz, eta herritarrak baloratzeaz, partaidetzaren, inplikazioaren, eta hausnarketa aktiboaren bitartez.

Lurralde batek bere historia dauka, bere harrietan eta iruditerian jasotakoa. Baina aldi berean etengabe berrasmatu behar du bere burua, bere kultur oinordetzarekin elkarrizketan beti ere. Ildo horretan, balio berezia ematen diegu Gipuzkoako kultur ehunak panorama artistikoa eguneratzeko eta berritzeko egiten dituen ahaleginei, hori baita gure ondare materiala eta inmateriala gordetzeko eta proiektatzeko biderik onena. Iragana eta etorkizuna, tradizioa eta sormena, ezin dira joan bakoitza bere aldetik. Ezer ez da ezerezetik sortzen, dena da birsortzea. Lurralde sortzaile batek ezin du lurralde-museoa izan. Etorkizunari begiratzeko unea da.

6.1. KULTUR PROIEKTUEN SUSTAPENA. Oinarri horietatik abiatuta, proposamen hauek bultzatu eta garatuko ditugu:

- Koldo Mitxelena Kulturune berria: 25 urtetik gorako ibilbide arrakastatsuen ondoren, Koldo Mitxelena Kulturunea berritzeko garaia iritsi da. Interneten zabalkundearen aurretik sortua, egindako egokitzapenak gorabehera, eraberritze sakonagoa behar du ekipamenduak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an martxan jarritako maila handiko heziketa zentroa da Elias Querejeta Zine Eskola (EQZE). Gurean ilusio gehien piztu duten kultur proiektuetako bat bilakatu da, zineari lotutako ibilbide luzea eta bokazio indartsua dituen lurraldearen sinergiak aprobetxatuz. Lehen promozioarekin hasi du bere bidea, eta ikasketak arrakastaz bukatu ondoren ikasleek unibertsitate mailako titulua edukitzea ahalbidetuko duen hitzarmena sinatu du EHU/UPVrekin. Orain, EQZEren proiektua finkatu nahi dugu zinearen hizkuntza unibertsala menderatuko duten ikasleak hezteko, zinearen eta ikus-entzunezkoen lurraldeko industriaren beharra aseko dituztena. Hezkuntza proiektua finkatzeaz gain, beste hezkuntza zentroen eta zinearen esparruko eragileen sareetan integratuko da EQZE, bere potentziala zein lurraldearentzat sor ditzakeen aukerak biderkatuz. Tabakalera KGNZko bazkide diren beste erakundeekin landuko dugu EQZE Tabakalerako organigraman txertatzeko aukera, efektu guztiekin.
- Eskola Kultura. Erakunde desberdinetatik kultur programazio aberats eta kalitatezkoa eskaintzeko egiten den ahalegin eskerga gorabehera, asko dira kanpoan gelditzen diren

herritarrak, eta eskaintza gozaten dutenen artean, batez besteko adina nahiko altua da. Are larriago, belaunaldi erreleborako zantzurik ez da. Artistak eta adituak bat datoz ezinbestekoa dela publikoa arteetara gerturatzea haurtzarotik hasita, eta premia horri erantzuteko, lurralde osoko adin txikikoen berdintasunezko parte-hartzea bermatuz, Eskola Kultura egitasmoa jarriko dugu martxan. Horren bitartez, era borondatezkoan, ikasleek diziplina artistiko desberdinak ezagutu eta gozatu dituzte haien hezkuntza zentroetan. Hartara, etorkizunerako bokazioak garatu ahal izango dituzte sortzaile gisa, edo publiko gisa.

- Sormen eszenikoaren aldeko apustua. Lurraldeko udalekin eta antzerkiekin elkarlanean, inpaktua sortuko duten kalitatezko eta tamainako ikuskizun eszenikoak sortuko ditugu. Bi helburu edukiko ditu proiektuak: alde batetik, herritarrak mota horretako ikuskizunetara gerturatzea eta interesa sortzea, eta, bestetik, Gipuzkoako esparru artistikoa osatzen dutenei lan aukerak eskaintzea, sormen eta kudeaketa prozesu desberdinetan.
- Lehen mundu biraren V. mendeurrena. Gizateriaren lehen esperientzia globala izan zen Elkanoren mundu bira, zalantzarik gabe. 2019 eta 2022 artean hainbat ekintza garatuko dira kultura eta arteen, dibulgazioaren eta dokumentazioaren, itsas ondarearen kontserbazioaren eta sustapenaren, eta garapenerako lankidetzaren arloetan. Juan Sebastian Elkanok balentria hartan eduki zuen rola nabarmentzen lagunduko dute guztiek ere. Ildo horretan, Aldundi bezala inplikatu gara Mundubira Fundazioan, Euskadiko gainerako erakundeekin batera, eta mendeurrenaren ospakizunetan inplikatu beste eskualdeekin elkarlanean arituko gara. Bestalde, Euskal Itsas Museo edo foru artxiiboak bezalako baliabide propioak aprobetxatuz, besteak beste, kultur proiektuak gure gain hartu eta horiek kudeatuko ditugu, aintzat hartuta gertakariak eskaintzen dituen nazioarteko oihartzuna eta lankidetzarako abaguneak.
- Gipuzkoako kultur mezenasgoa. Gipuzkoan kultur mezenasgoarekin espreski loturiko lehen euskal araua onartu ondoren, beharrezkotzat jotzen dugu datozen urteetan gizarteratze prozesu bati ekitea arau horrek zabaltzen dituen aukeren inguruan, herritarrekin, enpresekin eta udalekin kulturen inbertitzeak dakartzan onurei buruzko pedagogia eginez. Ildo horretan, Gipuzkoako mezenas marka sortuko da, eta edukia emango zaio, kulturarekiko eta mezenasgoarekiko konpromiso bereziagatik nabarmentzen diren persona fisiko eta juridikoak aitortzeko xedearekin. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orrialdean zerga aitorten automatikoa duten diru ekarpenak egiteko aukera ahalbidetuko da, kultur interes eta balio handiko gipuzkoar proiektuentzat.
- Gipuzkoako Arte eta Kulturaren Kontseilua finkatzea. Kontseilariak berritzeko prozesuari ekin, eta eztabaida eta gogoeta kolektiborako bide berriak zabaltzea. KBulegoa, kultur sortzaile eta eragileei zuzendutako arreta bulegoa finkatu.
- Aurreko legegaldian Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin elkarlanean sortutako Euskal Arkitektura Institutua finkatu eta garatu. Baita kultur sormena eta hedapena babesteko programa berriak ere, hala nola Crossover telesailen jaialdia, Katapultatua Tour, Kultur Dealers eta Meta!.
- Pasaiaiko Itsas Festivalaren bigarren edizioa ospatu, itsas eta ontzi ondarea balioan jartzen jarraitzeko tresna gisa. Lurraldeko kultur jaialdien ekosistemari eta museo sareari babesa eskaini.

6.2. EUSKARAREN LURRALDEA INDARTZEKO ESTRATEGIA ABIATZEA. Euskara gure komunikazio tresna ez ezik, gure kulturaren eta izaeraren ezaugarri nagusia ere bada. Azken urteotan euskara biziberritzeko eta sustatzeko bideetan ikusten ari garen gabeziei erantzuteko, eta azken legealdian egindako zubigintza lanak ahalbidetuta, beste jauzi bat eman nahi dugu. Gipuzkoa euskararen lurraldea izan dadin estrategia integrala bultzatu nahi dugu, lurraldeko eremu eta esparru ezberdinetan, euskara lehentasunezko hizkuntza izan dadin. Horrekin batera, mundu mailan hizkuntza gutxituen biziberritzeko estrategia eredugarri gisa kokatu nahi dugu.

- Gipuzkoa eremu eta esparru guztietan euskararen lurraldea izan dadin estrategia diseinatzea eta martxan jartzea euskalgintzako eragileekin elkarlanean.
- Nazioartean eredugarri bihurtzea estrategia integral horren garapenarekin.
- Erakundeen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana eta harremana sustatzen jarraitzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehentasunezko hizkuntza izateko urratsetan sakontzea.

6.3. KIROLA ETA BIZIMODU OSASUNTSUA BULTZATU. Bizitzeko, eta bizitza ulertzeko modu bat dira jarduera fisikoa eta kirola. Fisikoki aktibo egonda, aukera dugu gure osasuna hobetzeko, fisikoa zein emozionala, beste persona batzuekin harremanak sortzeko, eta bizi garen munduaren inguruan erreferentzia hobek edukitzeko. Horrez gain, desberdinen arteko batasun eta kohesio elementua da kirola Gipuzkoan. Lurraldeko taldeen kolore eta balioen inguruan, izaki sozial eta emozional bezala elikatzen gaituzten loturak sortzen dira. Azkenik, Gipuzkoak baditu gutxienez 20 talde goi mailan lehiatzen, eta kirol ikuskizunetik zaletasun handia dago. Testuinguru horrek talentu harrobi garrantzitsu bat errazten du, exijitzen diguna baldintza eta espazio egokiak sortzea. Foru Aldundiak gai izan behar du horretarako. Oinarri horien gainean, Foru Gobernuak honako proiektuak gauzatzea aurreikusten du:

- Adostasunak indartzea, gaztetxoek balioetan hezten, eta talentu berriak sortzen lagunduko duen eskola kirola eredu garatzen jarraitzeko. Kirol praktika anitza izango da aurrerantzean gipuzkoar eredu horren zutabe nagusietako bat. Halaber, bizitza osoan zehar ariketa fisikoa bultzatuko duten programak garatzen jarraituko dugu, bizimodu osasuntsuago baterako eredu tarantz pausoak emateko.
- Lurraldeak gaur egun daukan kirol instalazioen sarearen kontserbazio eta mantentze egoeraren berrikuspenari ekitea, eta horiek berritzeko aukeren azterketa sakona egitea, arreta berezia eskainiz emakumezkoen zein gizonezkoen errendimendu altuko eskubalo eta sakibalo taldeen beharrei, eta horien harrobiek dituztenei.
- Tokio 2020 Olinpiar Jokoetan parte hartzea lortzen duten Gipuzkoako kirolariari babes eskaintzea, ahalik eta baldintza onenetan lehiatzea errazteko helburuarekin.
- Gipuzkoako kirol talentuaren errendimendu altuko zentroa. Kirolgi foru fundazioak joan den legealditik hasita errendimendu handiko kirolariekin bete dituen babes funtzioak modu profesionalean garatuko ditu espazio horrek.
- Kirola eta emakumea: agerian gelditu da emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko espazio eta tresna eraginkorrenetako bat dela kirola. Jarduera horrek ematen dituen



ospea eta ikusgarritasuna aparteko eszenatokia eta erreminta dira gizartean berdintasunezko ereduak zabaltzeko, non emakumeak bere gaitasunarekin bat datorren rol protagonista eta pisuzkoa jokatuko duen. Hori dela-eta, joan den legealdian egin dugun bezala, emakumezkoen kirola indartzen jarraituko dugu, lehiaketen oihartzuna areagotzeko eta talentuko kirolarien finantzazioa handitzeko lan eginez.

- Ur lasterren kanala eta izokin-bidea. Azken hamarkadetako huts egindako saiakerak eta zarpuztutako ilusoak atzean utzita, Gipuzkoako merezi duen ur lasterren kanalaren proiektua gauzatzeko asmoa dugu, Usurbilen.

KULTURA DEMOKRATIKOA

7. HELBURUA: KULTURA DEMOKRATIKOA INDARTZEA

Herritarren arteko elkarbizitza hobetzeko eta gizarte sendo eta justua izateko, pertsonen kultura demokratikoan sakontzen eta indartzen jarraitu behar dugu. Gainera, pluralismo eta aniztasun politikoaren inguruko pedagogia egiten ere asmatu behar dugu.

Gipuzkoan elkarbizitza klima hobetzeak baketzean urratsak ematen jarraitu behar du, giza eskubideen errespetua oinarri hartuta, eta aniztasuna era positibo batez kudeatuz. Eta horretarako, etorkizuneko Gipuzkoa denon artean eraikitzeko, sakondu egin behar dugu gure kultura politikoan, balioetan oinarritutako kultura baita, demokratikoa, eta giza eskubideen urraketarekin kritikoa izan behar baitu.

Lurralde aurreratuagoa, gizarte kohesionatuagoa eta gizarte desberdintasun txikiagokoa izateko, gure arteko ezberdintasunei giza eskubideen errespetuan eman behar diegu bidea, eta horretarako ezinbestean kultura demokratikoa indartu behar dugu. Pertsonen balio demokratikoak indartzeak ahalbidetzen du egiazko elkarbizitza lantzea.

Urte luzeetan eman diren terrorismo eta indarkeriak egindako giza eskubideen urraketek gizartea ahulduta utzi zuten, baina ari gara pixkanaka zauriak sendatzen, justizia, erreparazioa eta dena galdu zuten biktimen memorian oinarrituz. Gure etorkizunerako eta datozen belaunaldientzat gakoa izango da indartze hori kultura demokratikoaren sakontzearen bitartez garatzea.

7.1. BAKERAKO BIZIKIDETZA. Iraganeko zauriak ixten joan eta bizikidetza berreraikitzeke ahalegin handia egin da azken urteotan Gipuzkoako hainbat udalerrri eta foro ezberdinetan. Lanketa horrekin jarraitzeko premia ikusten da gure iraganari buruzko memoria kritikoa sortzeko, eta konfiantzak, harremanak, elkarrekiko begiruneak eta abarrak indartzen joateko. Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu egingo ditu bakerako bizikidetza ahalegin horiek:

- Bizikidetza Lantzen programa berri eta garatzea.
- Bakeari, elkarbizitzari eta giza eskubideei buruzko udal politikak sustatzea Gipuzkoako elkarte sarearekin aliantzan
- Erakundeen artean koordinatzea eta elkarlanean jardutea giza eskubideei, biktimei, memoria historikoari eta oraintsuko memoriari, espetxe politikari, birgizarteratzeari, hezkuntzari eta elkarbizitzari buruzko politika publikoak ezartzeko

7.2. ANIZTASUNERAKO BIZIKIDETZA. Gurea bezalako gizarte pluraletan gero eta aniztasun gehiago dago, eta gehiegitan hori bazterkeriarako arrazoi bihurtzen da, eta ondorioz bizikidetza justu eta demokratikorako oztopo. Zentzu zabalean landu behar da aniztasuna. Hau da, pertsonen jatorriarekin, etniarekin, genero identitatearekin, sexu orientazioarekin, erlijioarekin edo gaitasun funtzionalarekin lotutako aniztasuna, besteak beste. Aniztasun horiek guztiak bizikidetzaren ikuspegitik lantzen jarraituko dugu:

- Giza eskubideen ezagutza eta errespetua sustatzea, gaiari buruz sentsibilizatzea eta zabalkundea ematea, dibulgazio jardueren bitartez, sentsibilizazio kanpainak eginez, baliabide pedagogikoak baliatuz, lankidetzaz hitzarmenak sinatuz, etab.

7.3. BALIO ETA KULTURA DEMOKRATIKOAK INDARTZEA. Lehentasunezkoa da gure lurraldean baldintzak sortzea ikuspegi kontrajarriak elkar errespetatzera iritsi daitezen. Gure helburua sistema demokratiko sendoa eta zorrotza eraikitzen laguntzea da, indarkeria berpiztuko ez den eta giza eskubideen babesa aingura izango duen etorkizuna finkatzearen. Elkarbizitza sistemetan egindako aurrerapenak zuzenean lotuta daude demokraziaren sakontzearekin eta herritarrek, erakundeetako ordezkariak eta gizarte antolatuak jarrera, balio eta portaera demokratikoetan egindako aurrerapenekin. Eta horretarako, balio eta kultura demokratikoak indartzen segi behar dugu:

- Kultura demokratiko eta politikoari buruzko ikerketa eta gogoeta sustatzea.
- Eztabaida demokratikorako pertsonen gaitasunak hobetzeko programa garatzea.
- Gazteen artean kultura demokratikoa sustatzeko estrategia partekatua diseinatzea eta garatzea.

EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

8. HELBURUA: BERDINTASUN OSOA LORTZEKO LAN EGITEA

Emakume eta gizonen arteko berdintasun maila hobetzen jarraitzea, justuagoa eta kristalezko sabairik izango ez duen gizartea eratzeko.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna gure gizartearen erronka nagusietakoa da. Azken urteetan aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugu, baina berdintasuneko politika publikoen arloan intentsitate eta koordinazio handiagoz jardun beharra daukagu. Aukera garaia dugu oraingoa, eta aprobetxatu behar dugu, berdintasun politikak esparru guztietan bizkortzeko.

Emakumeen kontrako indarkeriak, genero indarkeriak eta sexu indarkeriak, desberdintasunaren eta injustiziaren adierazle gordin eta onartezinenak dira, eta irmoki erantzuten jarraitu behar dugu. Baina horrekin batera, ezinbestekoa dugu berdintasunerako politika integralak sustatzen jarraitzea, etxetik eskolara, kaletik lantokira edota enpresatik administraziora. Guztion erantzukizuna da bihar gaur baino berdintasun handiagoa egon dadin gizonen eta emakumeen artean.

Datorren legealdirako, berdintasun politiketan jauzi kualitatiboa emanez, berdintasunerako gizarte kontratu berria bultzatu eta lideratu nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldean, gainerako erakunde eta eragileekin agenda oso bat garatuz.

8.1. BIZITZA JASANGARRIAREN ALDEKO ITUNA. Bizitzaren zentraltasuna bere gizarte-ereduaren iraunkortasunerako elementu kritiko gisa bultzatzen, errazten eta aitortzen duen lurraldea da Gipuzkoa. Pertsonen eremu sozialaren eta pribatuaren arteko orekaren alde apustu egiten du erantzunkidetasunaren bitartez, eta baliabideak eskaintzen ditu emakumeak zigortzen dituen genero-arraila gainditzeko, horiek baitira zaintzetan inplikazio gehien dutenak. Horretarako, gizarte eta lan harremanen kultura berri batean oinarritu eta estereotipoak gaindituko ditugu. Ituna esparru sozioekonomikoaren garapen handiagoan oinarritzen da, kontziliazio arduratsua bere ereduaren ardatz gisa hartzen duen enpresa ehun batean. Horrez gain, hainbat ekimen diseinatzea aurreikusten du, Plan Integral baten bitartez, erronka demografikoari aurre egiteko.

8.2. INDARKERIARIK GABEKO LURRALDEA. Baliabide berriak sortuko dira izaera sexista duten indarkeriei zilegitasun osoz aurre egiteko, biktimen aintzatespen eta erreparazio eskaerarekin bat etorritik eta indarkeria horiei berariaz uko eginez. Arreta eta laguntza baliabideak sustatuko dira, arreta eskaintzeko protokolo integral bat garatuz, eta indarkeriak eragindako emakume eta adingabeentzako laguntza baliabideak eta gizarteratze eta laneratze programak berrikusiz edo berriak sortuz.

8.3. “BERDINTASUNA” SORTZEA. GAZTEAK ALDAKETARAKO ERAGILE GISA. Gazteen belaunaldi honek berdintasuneko gizarte batera egokitzeko prozesua zuzendu ahal izango du, lehenengoz historian. Horretan laguntzeko sortu da plan integrala (“Gazte Agenda”), errespetua, erantzukidetasuna eta indarkerien gaitzespena funtsezko oinarri gisa hartuta. Horiek plan integral baten bidez garatzen dira, eta



hezkidetzarekin, sentsibilizazioarekin eta gaitasunen garapenarekin lotutako baliabideak hartzen ditu barne.

8.4. ELKARLANEKO POLITIKA PUBLIKOAK. Agenda bat garatuko dugu berdintasun arloko politika publikoen garapenean funtsezkoak diren gizarte eragileekin eta, bereziki, mugimendu feministekin batera. Herritarren partaidetza baliabideen eta lankidetzaren bitartez, ekimen bereziak garatuko ditugu mugimendua bera eta haren gaikuntza indartzeko: Emakumeen Etxeak, genero arloko prestakuntza, integrazioa ekimenak garatzeko kontsulta organo gisa eta abar.

8.5. LIDERGO INSTITUZIONALA. Politika publikoak eta erakundearen ordezkagarritasuna eremu guztietan ikusgai egitea. Aintzatespena eskainiko duten proiektuen aldeko apustua egitea (Euskadin, Estatuan eta Europan). Erakundearen posizionatze ezaugarrietan genero berdintasuna txertatzea.

KRISI KLIMATIKOA ETA INGURUMENA

9. HELBURUA: KRISI KLIMATIKOARI AURRE EGITEA

Klima aldaketa bezalako arazo global bati tokiko erantzuna ematea. Neurri integralak bultzatuko dira, hainbat esparrutan eragitea helburu dutenak: beharrezko den trantsizio ekologiko justua, ur eta energia kontsumoak murriztea, hondakinen kudeaketaren arloan adibide den eredu kontsolidatzea, energia berriztagarriak sustatzea, ekonomia zirkularra eta mugikortasunerako ohitura berriak bultzatzea.

Krisi klimatikoaren aurkako borroka mende honetako erronka nagusietakoa da, bai ingurumenaren zein soziopolitikaren ikuspegitik. Gure lurraldea bereziki sentziblea da klima aldaketari, eta nahiz eta argi daukagun ez goazela munduaren berotzearen arazoari irtenbidea ematera, gure esku dagoen dena egingo dugu hurrengo belaunaldiei jasagarria den planeta uzteko. Denoi eragiten digun erronka global honen aurrean, gure egitekoa da Gipuzkoa politika ausart eta anbizio handienekoen abangoardian kokatzea. Gainera, agertokia aukeraz beteta dago, aberastasuna eta lanpostu berriak sortuko dituen ekonomia berdea garatzeko. Gipuzkoak ezin du beste aldera begiratu. Ingurumenari eragiten dioten politika integral guztiek zutabe nagusizat izan behar dute klima aldaketaren aurkako borroka.

Gipuzkoan estrategia bat martxan jarrita dugu jadanik eta klima aldaketaren aurkako erreferentziazko zentroa ere abian da. Trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra bizkortzen lagunduko du zentroak, eta krisi honek eragin dituen ondorioen azterketan eta lurraldeak testuinguru honetara egokitu eta bere eragina mugatzeko dituen beharretan ere jarriko du arreta. Helburu estrategiko guzti hauen aplikazio praktikorako, hurrengo ekintzak garatuko ditugu:

9.1. KRISI KLIMATIKOARI AURRE EGITEA. Gipuzkoako Klima-Aldaketaren Aurkako Borroka-Estrategia 2050ri jarraiki:

- Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioa. Naturklima.
- Naturklimaren egoitza berriaren eraikuntza.
- Gazteekin foro egonkorra edota Think Tank bat eratzea: "Fridays for future".

9.2. GIPIZKOAN EKONOMIA ZIRKULARRA BULTZATZEA. 2030 urterako % 70eko birziklapen tasak lortzen lagunduko duen ekonomia zirkularra, GHHKPO 2019-2030 dioena betez:

- Aurreko legealdian martxan jarritako azpiegitura sarea bukatzea. Helburua, herritarrek jatorrian hiri hondakinen banatzeko egiten duten eguneroko ahaleginari ahalik eta ingurumen-etekin handiena ateratzea da.
- Berrerabilpena sustatzea, BPZaren (Gipuzkoa Berrerabilpenerako Prestakuntza Zentroa) eraikuntzarekin.
- Birziklapena bultzatzea, GK recycling eta GK Green Fashion klusterrak babestuz.

- Itsas zaborra eta sakabanatutako zaborra borrokatzeko ekintza plana.
- Erosketa publiko berdea bultzatzea. Lan taldeen eraketa.
- Ogasuneko departamentuarekin batera, ingurumen fiskalitatea bultzatzea. Lan taldeen eraketa.

9.3. ENERGIA EREDU JASANGARRIA. Eredü jasangarri baterako trantsizioa bultzatzea Gipuzkoan.

- Foru eraikin eta instalazioetan inbertsioak, energia eraginkortasuna eta energia berriztagarrien ezarpena helburu.
- Autokontsumoa bultzatzea.
- Energia aprobetxatzeko sareei eta energia berriztagarriei bultzada.

9.4. LURRALDEAREN ERAGINKORTASUNA ETA ERRESILIENTZIA SUSTATZEA.

- Antolamendu planen ingurumen ebaluazioan txertatzea klima aldaketaren eta energiaren aldagaiak.
- Gipuzkoako azpiegitura berdeen estrategia.
- Azpiegitura berdeetan inbertsioak.

9.5. HONDARTZEN ETA KOSTAREN KUDEAKETA PLAN JASANGARRI ETA INTEGRATUA.

- Gipuzkoako hondartzen kudeaketa eredu jasangarri eta integralaren alde egin.
- Gipuzkoako hondartzen kalitate eta ingurumen zertifikazioen arloan aurrera egin.
- Gipuzkoako kostaren bideometria sarea bultzatu.

9.6. NATUR INGURUNEEN ZAINZTA. Gipuzkoan ditugun balio handiko natur inguruneak babesten jarraituko dugu, haien kontserbazioa bermatuz eta balio sozialaren pedagogia eginez. Horrekin batera, gure paisaiaren kudeaketan jauzi bat eman nahi dugu, jasaten duen transformazio azeleratua kontuan hartuz.

- Paisaian inpaktu handia izan duten guneak birgaitzeko eta berreskuratzeko lurraldeko plana lantzea.
- Obra publikoen ondorioz paisaian eragin bisual handia izan duten eremuen katalogazioa egin eta egokitzapen plana abian jartzea.

LURRALDE OREKA

10. HELBURUA: LURRALDEAREN OREKA ETA ONGIZATEA INDARTU

Gipuzkoako eskualdeen arteko arrakalak murriztuz, eta lurraldearen egituraketa bilatuz, udalerrri eta eskualde ezberdinetan bizi baldintza eta zerbitzu publikoen estandar antzekoen bitartez. Landa inguruneko herri txikietan ongizate aukera osoak bermatuko dituzten politikak garatzea.

Gipuzkoa lurralde orekatua da eta oro har, eskualde eta herrien arteko desberdintasunak ez dira handiak. Oreak hori aberastasun preziatua da lurralde garapenerako, gipuzkoarren ongizaterako eta gizarte kohesiorako. Hortaz, babesten eta sustatzen jarraitu behar da.

Hala ere, gizarteko joerei, bizi ohiturei, populazioaren zahartzeari eta beste hainbat faktoreri lotuta, landa eremuetako herri txikien etorkizuneko biziraupenak bereziki baditu zenbait erronka eta desafio. Gipuzkoaren nortasunaren, izaeraren, historiaren eta kulturaren hain parte garrantzitsuak diren herri horien etorkizuna bermatzea lehen mailako gaia da Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat.

Ohiko landa garapenerako politikak bultzatzeaz eta indartzeaz gain, herri txiki horietarako bereziki diseinatutako lan ildoak garatuko dira datorren legealdian, beti ere argi edukita helburua herri horietako pertsonen bizi baldintzetan eta zerbitzuetan beste herri eta hiriguneen pareko ongizate aukerak eskaini nahi ditugula.

10.1. LANDA EREMUAN JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEA. Herri txikien biziraupenerako faktore garrantzitsuenetako bat da bertan jarduera ekonomikoa egotea. Lehen sektoreko jarduerak ez ezik, transformazioko, zerbitzuetako edo turismoko jarduera ekonomikoak ere ari dira garatzen azken urteotan. Ikuspegi integralarekin, gune horietako etorkizun ekonomikoa lantzen eta indartzen lagunduko diegu bertako herritar, udal eta gainerako eragileei.

10.2. IRUN ETA PASAIKO BI HIRI TRANSFORMAZIO HANDIEI BABESA. Datorren legealdian Pasaialdearen biziberritze integralerako proiektuen amaiera landu behar da. Portuaren Plan Bereziaren berrikuspena onartuta dago, eta amaituta dago baita ere Hospitalillo eta Adinberri zahartzea ikertzeko zentroko proiektuen tramitazioa administratiboa. Hau eginda, orain Hospitalliko lurpeko aparkalekua eraikitzeko lanekin hasi behar da; Herrerako Iparraldean sortzen diren eremu ekonomiko berriak definitu eta bultzatu; Pasai San Pedroko Lonjaren obrak amaitu; Trintxerpe eta San Pedroko pasealeku eta eremu publiko berriak; Portu Agintaritzaren eta Pasaiaiko Udalaren arteko Portua-Hiria batzorde egonkorra sortu; eta Portuaren lehiakortasuna babestu.

Gainera, Aldundiak indarrean dauden erakunde arteko hitzarmenak garatuko ditu, lurraldeari buruzko ekintzen arloan.

10.3. HERRI TXIKIEN BALDINTZA MATERIALAK HOBETZEA. Landa eremuko herri txikietan azpiegitura, zerbitzu eta baliabide aldetik, hiriguneetan ez dauden mugak eta gabeziak daude. Bizi baldintza materialak hobetzea herrien biziraupenerako aldagai garrantzitsua da, eta lehentasunezkoa izango da hurrengo legealdiko neurrietan:

- LandaGipuzkoa programa integrala berritu eta garatzea, Gipuzkoako herri txikienetan bizi baldintza eta zerbitzu egokiak ahalbidetzea sustatuz.
- Banda zabal ultraazkarra falta diren landa eremuko auzo eta etxe guztietara eramatea sustatuko da.
- Baserri bideak konpontzeko diru laguntzak garatzen jarraituko da:
 - Udalekin elkarlan eraginkorragoa indartuz.
 - Baserri bideen inbentario digitalizatua eginez.
- Nekazal elektrifikazioaren berritzea bultzatzeko eta laguntzeko plana berrituko da, inbertsioak errazteko eraginkortasuna hobetuz.
- Ur edangarri sarea osatzeko eta hobetzeko plana sustatzea Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin elkarlanean, oraindik kalitate oneko ura edukitzeko arazoak dituzten eremuetara sareko hornidura ona eramateko.
- Biziraupen arriskua duten udalerrietan etxebizitza sustapena laguntzea.

10.4. HERRI TXIKIEN EZAUGARRI IMMATERIALAK INDARTZEA. Gizarteko eraldaketa, ohitura eta joera aldaketekin batera, landa eremuko herri txikietako bizimoduak ere asko ari dira aldatzen azken urteetan. Gainera, Gipuzkoako herri txiki askotan populazio fluxu nabarmenak egon dira urte gutxitan eta horrek kultura nahasketa handitu du. Guztiarekin, herrietako komunitate bizitza ahultzen ari da neurri handi batean, eta horrekin, herriko bizitza ere bai. Herri txiki biziak sustatzeko helburuz, balio immaterialeko jarduerak, ekintzak eta proiektuak ere bultzatuko ditugu:

- Herri txikietako bizitza dinamizatzeko eta indartzeko plana garatzea eragile ezberdinekin elkarlanean.

10.5. LURRALDE OREKAREN GARRANTZIAZ SENTSIBILIZATZEA. Landa eremuaren eta hirigunearen, edo landa eremuko kulturaren eta kultura urbanoaren arteko elkar ezagutza eta aitortza indartzea ezinbestekoa da. Lurralde orekaren garrantzia azpimarratzea ere esparru horretan kokatzen da. Benetako oreka sustatzeko, beharrezkoa da landa eremuko herrien lurraldeko funtzioen eta garrantziaren aitortza egitea. Horregatik, sentsibilizazio ekintzak sustatuko dira, gipuzkoar gizarteak oro har gure landa eremua ezagutu eta balioetsi dezan.

FORU ALDUNDIAREN ERALDAKETA

11. HELBURUA: FORU ALDUNDIA ERALDATZEA

Egungo munduak eta gizarteak dituen beharrei erantzuteko foru administrazioa berritzea, gertuko erakunde moderno, desburokratizatu, digitalizatu eta malgua izan dadin.

Autogobernua da gure ongizatearen hiru gakoetako bat, ekonomia lehiakorraz eta gizarte kohesionatuaz gain. Gure erakunde publiko propioen sistemak sustatu eta lagundu du gure herrian dugun ongizate maila altu honetara heltzen. Azken berrogei urteetan eraikitakoari jarraipena eman, eta etorkizunean ere ongizatea bermatzen jarraituko duen erakunde sistema eduki dezagun, ezinbestekoa da gaur beharrezko diren eraldaketak egitea. Mundua eta gizartea aldatzen doazen bezala, gure erakundeek ere sakoneko transformazioa behar dute bihar ere gure ongizatearen zutabe izaten segi dezaten.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren erronka nagusia da gipuzkoarren eta Gipuzkoaren egungo eta biharko beharrei, mundu globaleko aldaketen testuinguruan, ahalik eta modu eraginkorrean erantzuna emateko prestatzea. Horrek eskatzen du galdera nagusi bati erantzutea: zeintzuk dira gaur Gipuzkoako Foru Aldundiak egin ditzakeen herri politika eragingarrienak bere eskumenak kontuan hartuta, Gipuzkoari eta gipuzkoarrei zerbitzu onena emateko?

Galdera horretatik abiatuta, erakundeari egokitze eta transformazioko hainbat erronka planteatzen zaizkio: barne antolaketa, funtzionarioen belaunaldi aldaketa, digitalizazioa, erakundearen gizarte papera, gobernantza eredua, birdimentsionamendua, etab.

Eraldaketa eta egokitze prozesua Gipuzkoako Foru Aldundiaren datozen urteetako erronka nagusietakoa izango da. Helburua da datorkigun munduan, balio publiko gehiago sortzeko gai izango den erakundea izatea, herritarrari zerbitzu hobea eskainiz eta lurraldearentzat politika publiko eraginkorrak bultzatuz.

Horretarako lau lan ildo nagusi aurreikusten dira 2019-2023 legealdirako: administrazio publikoaren barne antolamendua, herritarrarekiko zerbitzua eta harremana, lurraldean erakundeak duen eraginkortasuna eta erakundearen sendotasun politikoa.

11.1. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BARNE ANTOLAMENDUA EGOKITZEA. Barne antolamenduari dagozkion elementu ezberdinak (egiturak, funtzioak, prozesuak, teknologia, profilak, etab.) modu inteligentean eta eraginkorrean egokitzea legealdiko barne erronka handienetakoa da. Belaunaldi aldaketako eta transformazio digitaleko garaia aukera ona da datozen urteetako administrazioaren egitura efiziente, malgu eta sendoagoa diseinatzeko. Dugun egitekoa burutzeko, honakoak bultzatuko ditugu:

- Belaunaldi erreleboa gauzatzea foru administrazioaren eraginkortasuna kaltetu gabe, behar berriei erantzuteko egokitzuz, eta bideragarritasuna bermatuz.
- Pertsona erdigunean jarriko duen organigrama, egitura eta antolamendua sustatzea.
- Departamentuen arteko harremana eta prozesuak erraztuko dituzten sistemak ezartzea.
- Teknologia aurreratuenen ezarpena bultzatuz Foru Aldundiaren behin-betiko digitalizazioa bultzatzea.

11.2. HERRITARREKIKO ZERBITZUA ETA HARREMANA HOBETZEA. Gipuzkoako herritarrak foru administrazioarekin duen harremana hobea egin nahi dugu: errazagoa, efizienteagoa, azkarragoa eta konfiantza gehiago sortuko duena. Horretarako, elkarlaneko gobernantzaren, gobernu onaren eta Etorkizuna Eraikiz-en erudian sakontzeaz gain, hiritarren prozesu administratiboak eta harreman bideak hobetuko ditugu.

- Desburokratizazioan sakonduko dugu, hiritarrarentzat prozesu administratiboak errazagoak izan daitezzen.
- Harremanetarako zein prozesu administratiboetarako bide digitaletako aukerak handitzen jarraituko dugu.
- Hiritarraren arreta zerbitzua pertsonalizatua eta malguagoa egingo dugu.
- Hiritarrek Foru Aldundia gehiago ezagutu dezaten ekintza plana garatuko dugu.
- Aurrez-aurreko, telefono bidezko zein internet bitarteko komunikazio eta informazio sistemak indartzen eta hobetzen jarraituko dugu.

11.3. LURRALDEAN ALDUNDIAK DUEN ERAGINKORTASUNA HANDITZEA. Dituen eskumenak kontuan hartuta, Gipuzkoaren garapenerako eta ongizaterako eraginkorrenak diren herri politikak bultzatu behar dira egungo eta biharko testuinguru eta baldintzetan. Horrek nahitaez, politika publiko asko birpentsatzera eramane behar du, eta balio publiko handiagoaren bilaketa etengabera. Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldean duen eragina handitzeko eta hobetzeko bidea urratu behar dugu. Etorkizuna Eraikiz da horretarako tresna eta espazio egokiena, eta berau aprobetxatuz bultzatuko dugu Foru Aldundi guztian:

- Herri politiken ebaluazio sistemak fintzea eta berrikuspen prozesuak lantzea.
- Aurrekontuak egokitzea herri politika eraginkorragoak lortzeko.
- Herri politiketan berrikuntza sustatzea.
- Herritar, erakunde, enpresa eta bestelako eragileekin elkarlaneko bideak sendotzea.
- Zerga bilketa zorroztasunez eta gardentasunez kudeatzen jarraitzea.
- Zerga iruzurraren aurkako estrategia integralean jarraitzea, kontrol sistemak, baliabideak eta gizarte kontzientziazioa bultzatuz.

11.4. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN SENDOTASUN POLITIKOA INDARTZEA. Gure ongizatearen hiru zutabeetako bat gure autogobernu sistema izanik, gure herri erakundeak sendotzea lehentasuna da etorkizuneko ongizatea bermatzeko. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren sendotasun politikoa lantzeak, batez ere, esan nahi du modu integralean erakundearen legitimitatea handitzea eta gaitasunak indartzea. Horretarako besteak beste, honakoak landuz:

- Gizartean erakundearen funtzioaren ezagutza handitzea.



- Lurraldeko, Euskal Herriko nahiz kanpoko enpresa eta erakundeekin interlokuzio gaitasuna hobetzea.
- Nazioarteko sareak indartzea.
- Herritarren konfiantza handitzea.
- Erakunde moderno eta eraginkorra izatea.

LURRALDEAREN GAZTETZEA

12. HELBURUA: BIZTANLERIAREN ZAHARTZAREARI AURRE EGITEKO POLITIKAK

Politika berriak erein, lurraldearen biztanleria piramideak duen zahartzerako joera dramatiko iraultzeko. Lurraldeko biztanleria gaztetzeko gai izan behar dugu, etorkizuneko ongizate maila baita jokoan dagoena.

30 eta 50 urteen artean ia Gipuzkoako biztanleriaren herena dago (%29,16). 1975ean lurraldeko batez besteko adina 31,55 urtekoa zen eta, gaur egun, 44,69 urtetan dago. Gainera, 2031. urtean 47,19 urtera igoko dela aurreikusten da. Biztanleria piramidea estutzen ari da oinean, eta zabaltzen goiko aldean. Azken hamabost urtetan, 65 urte baino gehiagoko biztanleria % 26 igo da lurraldean, eta 151.362 pertsona dira jada. Gaur egun, bost gipuzkoarretatik batek (%21,3) adin hori gainditzen du.

Zahartze indizea (64 urte baino gehiago eta 16 urte baino gutxiago dituzten biztanleria taldeen arteko erlazioa), igo egin da beste urte batez: %139,43 (2016an %136,19koa zen, 2015ean %134,54, 2014an %132,86 eta 2011n %128,44); Euskadikoa baino baxuagoa da (%145) eta Estatukoa baino altuagoa (%118,28). Gainera, mendekotasun tasak hazkunderako joera nabarmena dauka (65 urte baino gehiagoko biztanleria 16-64 urte artean dituztenekin alderatuta). Adierazle hau 2010ean %28,8an zegoen, eta 2030erako %44,9ra pasako da (Eustat).

Gipuzkoako biztanleriaren zahartze mailakatu baina geldiezin hau eta bizi-itxaropenaren luzatzeak erronka garrantzitsuak dakartzate arlo ezberdinetan: gure arreta eta gizarte zerbitzuen finantza jasangarritasuna; adinduek bizitza egokia izateko behar dituzten zerbitzu eta laguntza eskaintza; gure enpresek hazteko behar dituzten langileak; eta zahartzen ari den lurralde baten dinamismo eta ausardia, gazteen bultzada behar duena erakargarri eta berritzaile izaten jarraitzeko. Biztanleria aktiboaren ordezkapen-indizea (erretiroa hartetik gertu dagoen biztanleria, hau da, 60-64 urte dituztenak, lan merkatuan sartzetik gertu daudenekin alderatzen du, 20-24 urtekoekin) igo egin da beste urte batez: %144,70 (2016an %144,3koa zen, 2015ean %143,73koa eta 2011n %138,96koa); Euskadikoa baino baxuagoa da (%153,5) eta Estatukoa baino altuagoa (%114,5).

12.1. GIPUZKOAKO GAZTETZEAREN ALDEKO PLAN BEREZIA. Koalizio gobernua plan berezia diseinatuko du, Gipuzkoa gaztetu eta jaiotza tasar bultzatzeko. Euskadi eta Estatu mailan adostutako hitzarmen eta estrategiak ahaztu gabe, Gipuzkoak plan berezia landuko du lurraldearentzako. Egoeraren diagnosi zehatza egingo da, eta gure gizartearen zahartzea murrizteko neurri eta proposamenak mahai gaineratuko dira. Plana zeharkakoa izango da, eta Gipuzkoak Euskadi mailako lankidetzak markoetan duen posizioei ere eragingo die. Gainera, aurrekontu propioa izango du, foru eskumenek aurreikusten dituzten ekintzak gauzatzeko.

12.2. PLANIFIKAZIOA ETA ETORKINEN GIZARTE INTEGRAZIOA. Krisi ekonomikoak gehien eragin dion eta bazterkeria arrisku handiengan dagoen kolektiboa da etorkinena. Hala ere, oso esanguratsua da biztanleria atzeritarrak gure lurraldearen demografian duen eragina, eta faktore honi esker gure biztanleria ez da murriztu azken urteetan. Gipuzkoak ezin du ezikusiarrena egin gizarte eta ekonomia inplikazio hauen aurrean, garrantzitsuak baitira gizarte kohesioa eta bizikidetzak mantendu eta epe ertain eta luzean ongizate mailari eusteko.

ZERGA IRUZURRA

13. HELBURUA: ZERGA IRUZURRA ETA IHESA BORROKATZEN JARRAITU

Gastu publikoak sostengatzeko ekarpenak egiteko betebeharra elkartasunezko betebeharra da. Zerga iruzurgileak ongizate estatuaren etsaiak dira.

13.1. ZERGA IRUZURRA HAUTEMATEKO AUKERAK AREAGOTZEA. Giza baliabide eta materialak hobetzen jarraitu zerga iruzur eta ihesaren aurkako borrokaren arloan.

13.2. PREBENTZIOZKO POLITIKAK ETA ZERGA PEDAGOGIA. Zergadunak jakitun izatea iruzurra ez dela errentagarria.

13.3. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA. Gipuzkoako Foru Ogasunaren eta beste administrazio publiko eta erakundeen arteko lankidetzak.

13.4. ARAUDIA. Araudi aldaketekin jarraitu, zerga ihesa eta iruzurra ahalbidetzen duten bideak ixteko.

Donostian, 2019ko ekainaren 26an.